

BERA, SUNBILLA ETA LEITZA





BERAKO EGITARAU



Joan den urteko txupinazoan hartutako irudia.

UZTAILAK 31, ORTZIRALEA

11:00etan txupinazoa San Jose Zahar Etxean. **19:30ean** Gure Txokoa Dantza Taldearen jaialdia Eztegar pilotalekuan. **20:00etan** Euskal preso poitikoan aldeko elkarretaratzea Mukixu zubian. **Ondotik** afaria Espidobaita Elkartean.

ABUZTUAK 1, LARUNBATA

10:00etan Mendialdeko Bote Luze Pilota Txapelketako jardunaldia Ricardo Baroja eskolako frontoian (euria ari badu, Eztegar pilotalekuan). **11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era** puzgarriak Eztegar pilotalekuan (eguraldi txarra eginez gero, Toki Ona kiroldegian). **18:30ean** Herriz Herri Txapelketako herri kirol jardunaldia: Bortzirriak, Irurita eta Ultzamaldea taldeak. **20:00etan** Ikastolako ostatuaren irekiera Altzateko pilotalekuan. **22:00etan** Berako XII. Gau Krosa: Irteera: Frantxia Haltzuet Alzate Plazan. Izen ematea: www.manttale.com. **Ondotik** DJ Perry txosnagunean.

ABUZTUAK 2, IGANDEA

Altxaferoaren aitzinetik hamaiketako ikastolako ostatuan eta txosnagunean. **11:00etan** ahantzien oroimenez

lore eskaintza Herriko Etxeko Plazan. **12:00etan** herriko besten hasiera iragarriko duen txupinazoa. Euren jarrera antimilitaristarekin eta indarkeriarik gabeko desobedientzia zibilarekin arrastoa utzi duten beratar aipagarriek botako dute: Luka Remiro, Oskar Goñi, Tobi Ruiz, Joxi Iratzoki, Patxi Jorajuria, Ramon Telletxea, Edurne Elizondo eta 1987ko udal ordezkariak. **Aldi berean**, ezklila jotzea eta ttikientzako goxokiak. **Ondotik** erraldoiak eta buruhandiak karrikaz karrika ibiliko dira Incansables txarangarekin, Ezpelur Gaiteroekin eta Berako Gaita Eskolarekin batera. **13:00etan** euskal preso politikoen aldeko topa egitea Espidobaita Elkartean. **17:00etan** Ezpelur Gaiteroak San Jose Zahar Etxean. **19:00etan** txosnaren irekiera Toki Onako patioan. **19:00etan** Sunkile batukada txosnagunetik abiatuta. **19:30ean** Berako txistularien kalejira Illekuetatik Herriko Etxeko Plazara. **21:00etan** dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Kanttonberri karrikan: fandango, arin-arina, larrain dantza... **23:00etan** erromeria txosnagunean Akerbeltz taldearekin. **01:00etan** kalejira Incansables txarangarekin.

ABUZTUAK 3, ASTELEHENA

09:30ean Berako txistulariak diana joko dute eta Ezpelur Gaiteroak herrian barna ibiliko dira. **10:30ean** meza Berako Abesbatzarekin eta erraldoekin. **11:30ean** Gure Txokoa Dantza Taldeko



Mekanizazioa
Galdaragintza Industrial
eta muntaketak
Zalain Ind., 9 | **BERA**
T. 948 63 11 67



Etxera eramateko
MENU OSOA
10,80€tik
hasita
948 631 017



Sara karrika, 7 (Agerra auzoa) **BERA**

ZENTRU LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA

Nekane Ordoki Gonzalez
ongi pasa best-tak!

- ✦ Ahozkapen zailtasuna ("erre" gaizki esana, "ceceo"-a...)
- ✦ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ✦ Irakurketa arazoak
- ✦ Idazketa arazoak
- ✦ Toteltasuna "tartamudeo"
- ✦ Ahots arazoak
- ✦ Arnasketa arazoak

Euskaraz/Erdaraz

646 894 332
BERA



HARGINTZA
FATXADAK | OBRAK
TXIMINIAK | ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK



www.antzuzelai.com

BERA | T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com



RAUL
IPARRAGIRRE ALZURI
Fisioterapia-Osteopatia
606 260 659

Alzate, 5 - **BERA** | Ondarreta pasealekua, 13 - **DONOSTIA**

MARITX

Ingeniaritza elektrikoa Boletín industria
Proiektu elektrikoak Instalazio elektrikoak

636 617 450 | Legia, 23 BERA

K

AROTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

info@kortanaik.com

Alkaiaga ind. - Elutsa, 1 - 31780 - BERA
T/F. 948 631 651 - M. 661 273 988

SORKUNDE BENTA

IBARDIN

ONGI PASA BESTAK!

BERA · IBARDIN · 00 34 948 630 724

Ongi pasa bestak!

PIKA BEA

HARATEGIA
URDAITEGIA

948 631 284

Sara karrika, 7 (Agerra auzoa) BERA

ONGI PASA
HERRIKO BESTAK!

errandonea
EDARIAK

Ziobi 11, Alkaiaga Industrialdea.
31789 BERA Tel. 948 630 982



Bestetako egun handian, goizean, makil dantzak eta bordondatza dantzatuko dituzte

kideek, txistulariekin batera, Berako makil dantzak eta bordondatza dantzatuko dituzte. **12:30etan** Maddi Ane Txoperena eta Unai Iturriaga bertsoariak Herriko Etxeko Plazan kantatuko dute. **13:00etan** Ezpelur Gaiteroak Ibardinen barna joko dute, eta Incansables txaranga Alzaten ibiliko da. **17:30etan** Incansables txaranga San Jose Zahar Etxean. **18:00etan** Gure Txokoa Dantza taldeak, txistulariekin, Berako Aurreskua dantzatuko du Herriko Etxeko Plazan. **18:30etan** Berako Bandaren kontzertua Herriko Etxeko Plazan. **19:15etan** Incansables txaranga herrian barna ibiliko da. **21:00etan** dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Kanttonberri karrikan (fandangoa, arin-arina, larrain dantza...). **22:00etan** zezensuzkoa Itzea karrikatik Alzateko Plazara. **23:00etan** DJ Bull txosnagunean. **01:00etan** kalejira Incansables txarangarekin.

ABUZTUAK 4, ASTEARTEA

09:00etan Irats taldeko trikitilariak eta pandero jotzaileak Alkaiaga,

Zalain Zoko eta Zalain auzoetan ibiliko dira eta Ezpelur Gaiteroak Eltzaurdia eta Kaule auzoetan ibiliko dira. **10:00etan** plater tiroketa ehiza ibilaldi modalitatean, Lizuniagako tiro eremuan. **11:00etan** Incansables txaranga San Jose Zahar Etxean joko du. **11:00etatik 13:00etara** Txiki-txoko (joko tradizionalak) Frantxia Alzuet Alzate Plazan. **12:00etan** helduen herri danborrada Berako Bandarekin eta Incansables txarangarekin. Herriko Etxeko Plazatik Kanttonberri karrikara joanen dira. **13:00etan** bermut berretsua txosnagunean. Bakarriketak. **18:00etan** gizonezko pilotari profesionalen arteko partidua: Agirre-Ugartemendia, Apezetxea II-Aldaberen kontra. Ezkurdia-Abisu, Laso-Martijaren kontra. **19:30etan** erromeria txosnagunean Eztitan taldearekin. **21:00etan** dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Kanttonberri karrikan (fandangoa, arin-arina, larrain dantza...). **22:30etan** migatuak Herriko Etxeko Plazan Incansables txarangarekin. **23:30etan** erromeria txosnagunean Eztitan taldearekin. **01:00etan** kalejira incansables txarangarekin.

Ongi pasa bestak!

ORÖZ

Tel. 948 630 180 - Alzate 28, BERA

IZEA

KAFETEGIA
OSTATUA

Ongi pasa bestak!

Bokatak
Pintxoak
Razioak

Eztegara pasealekua, 30
Bera - 688 64 16 79

ABUZTUAK 5, ASTEAZKENA

09:00etan musika eskolako trikitilariak eta pandero jotzaileak Suspendan ibiliko dira, eta Ezpelur Gaiteroak Zia eta Dornaku auzoetan. **10:00etan** haurrentzako ginkana, Frantzia Haltzuet Altzate Plazatik hasita. Adina: 8-12 urtekoentzat. **12:00etan** migatuak Herriko Etxeko Plazan Incansables txarangarekin. **12:00etan** tokiko produktuen dastaketa eta ekoizleekin tertulia txosnagunean. **12:30ean** erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur Gaiteroekin Agerran ibiliko dira. **14:15ean** kantu bazkaria Altzateko pilotalekuan. **17:30ean** haurren danborrada Incansables Txarangarekin. Ibilbidea: Kanttonberri karrika-Eztegara pasealekua-Mukixu zubia-Altzate karrika-Legia karrika-Osasun Etxea-San Jose Zahar Etxea-Kanttonberri karrika. **19:00etan** migatuak Herriko Etxeko Plazan Incansables txarangarekin. **21:00etan** dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Kanttonberri karrikan (fandangoa, arin-arina, larrain



Aurten ere ez da danbor soinuak faltako.

dantza...). **22:00etan** zezensuzkoa ibiliko da Itzea karrikatik Altzateko Plazaraino. **23:00etan** kontzertua txosnagunean Modus Operandi taldearekin. **00:30ean** txosnagunean DJ Fresa Morango. **01:00etan** kalejira Incansables txarangarekin.

ABUZTUAK 6, ORTZEGUNA

09:00etan Bera Kantari taldea Garaitarreta auzoan ibiliko da eta Ezpelur Gaiteroak Suspelttikan. **12:00etan** erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur Gaiteroekin Altzateko Plazatik Herriko Etxeko Plazara joan dira. Han, erraldoiei agurra egingen zaie. **12:00etan** Muxikoak Otsanda taldearekin Toki Onako patioan. **17:00etan** Ezpelur Gaiteroek San Jose Zahar Etxean joko dute. **17:30ean** emakumezkoen elite mailako pilota partiduak Eztegara pilotalekuan: Aldai-Bertiz, Ruiz de Infante-Capellanen kontra. Salsamendi-Mendizabal, Zabaleta-Gaminderen kontra **18:30etik** **20:30era** gazteentzako diskobesta DJ Mikeltxirekin, Frantzia Haltzuet Altzateko Plazan. **19:30ean** kontzertua Herriko Etxeko Plazan Tenerifeko Banda (eguraldi txarra eginez gero, elizan). **19:30ean** bertso-merienda musikatua Nerea Ibarzabal eta Ekhiñe Zapiain bertsolariekin txosnagunean. **21:00etan** dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Kanttonberri karrikan (fandangoa, arin-arina, larrain dantza...). **22:00etan** zezensuzkoa ibiliko da Itzea karrikatik Altzateko Plazaraino. **00:00etan** Azken guda dantza txosnagunean. **01:00etan** kalejira Incansables txarangarekin.

*Bestabusa abuztuaren 1ean izanen da.

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

INGURU ELEKTRIKOA
KANTONBERRI
DOMOTIKA
SOLUZIO PANELOAK

Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

DESIN BERA

Ongi pasa bestak!

Desinsektazioak
Arratoi hiltzeak
Desinfekzioak
Egur tratamenduak
Hegaztien kontrola

T. 948 625 597 | Zalain, 42 B | BERA

GOURMET ETA BESTAKO PRODUKTUAK

URKILA
HARATEGIA

Kanttonberri, 12
BERA

948 630 439
666 407 210

PLATAFORMAS BIDASOA

PLATAFORMEN ALOKAIKUA

639 103 305
Alkaiaga Pol. Ziobi 15
plataformasbidasoa@gmail.com

ILAIK
ILEAPAINDEGIA

948 631 427

Goxune
Ongi pasa bestak!

Kafetegia Okindegia

Sara kalea, 7 - BERA | Tel: 948 630 235

Udako ordutegia: ekainaren 24tik irailaren 1era

Asteazkenetik igandera
07:30-13:30
17:00-21:00

Astelehen eta astearteak
07:30-13:30
Astelehen eta astearte arratsaldeak ixita

mendi mendian

Ongi pasa bestak!!!
JATETXEA • DENDA • OSTATUA

IBARDIN | BERA | NAFARROA | (0034) 948 630 723
mendimendian@hotmail.com | www.mendimendian.com

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 | M: 620 172 679

ie Iriarte-Etxandi *Ongi pasa bestak!*
artekaritza-aholkularitza

Occident ASEGURUAK

Kanttonberri, 1 • BERA • T.948 631 169



**HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA
AIRE GIROTUA**

M. 639 103 305 - BERA
indharri@gmail.com



**ITURGINTZA • GASA • BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNeko & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK**

**Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa**

629 449 602

«Ilusio berezia egiten dit nire kartelak Berako bestak iragarriko dituela jakiteak»

MADDI LASARTE BARREDO EGITARAUAREN AZAL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

G. Pikabea BERA

Hamabortz urte bete berriak ditu Maddi Lasarte Barredo beratarrak. «Lagunekin eta familiarekin egotea gustuko» du, eta bere afizio nagusiak «dantza eta musika» dira. Hala kontatu dio TTPI-TTAPARI: «Betitik gustatu izan zait dantza eta nire familian ttikitatit izan dugu musikarekiko zaletasuna; zeharkako txirula eta panderoa jo izan ditub». Gure Txokoa dantza taldean ere ibiltzen da.

Ikasturte «desberdina»

Ikasketei dagokienez, aurten DBH 3 bukatu du, eta aitortu duenez, «ikasturte desberdina» izan da beretzat. «Aldaketa ugari» izan dituelako dio hori: «Alde batetik, ikastetxez aldatu naiz, institutura pasatu naizelako. Bertzetik, irakasleak ere aldatu zaizkit, baita gelakideak ere». Baina ederki moldatu omen da: «Ikasturtea hagitz ongi joan da eta gelakideekin zein irakasleekin giro ona izan dut». DBHko azken ikasturtea eginen du heldu den urtean, eta hori bukatzean, Batxilergoa egiteko asmoa du. Eta gero geroakoak: «Oraindik ez dakit zer ikasiko dudan».

Orain, ordean, ikasketak alde batera utzita, udaz gozatzen ari da. Ba omen zuen oporrak hartzeko gogo, «nekatua nintzelako». Eta udan «nire asmo

nagusia ongi pasatzea da: lagunekin planak egitea, familiarekin bidaiatzea... Baina, batez ere, deskantsatzea».

Azal lehiaketa

Deskantsua bai, baina besta ere bai. Eta bereziki ate joka diren herriko bestetan. «Bestak ailegatzeko gogoz» dagoela onartu du, eta «gehienbat, lagunekin ekitaldietara eta kontzertuetara joateko» ilusioz dagoela. Baina dena ez da hori. Aurten badu beste begira kontent egoteko bertzeko arrazoi estra bat; berea baita beste- tango egitarauaren azalean ageri den irudia: «Ilusio berezia egiten dit nire kartelak bestak iragarriko dituela jakiteak».

Institutuan, «gelako lan bat egiteko» ideiarekin hasi omen zen dena: «Irakasleak, nahi zuenak, lana lehiaketara aurkezten ahal zuela erran zigun. Nik, egia erran, hasieran ez nuen aurkezteko intentziorik. Handik egun batzuetara, irakaslea hurbildu zitzaidan nire kartela aunitz gustatu zitzaizola erranez, eta berak animatu ninduen lehiaketan parte hartzera».

Zerbait «sinplea eta ez sobera kargatua egiten» saiatu zen. «Hasieran, ez nekien nondik hasi, ez nuen ideiarik. Berako bestetan, ekitaldi desberdin aunitz izaten dira: danborrada, aurreksua, makil dantzak... Eta ho-



Ongi pasa bestak txurripuki!
Aupa hi!

**Bizikleten salmenta,
konponketa eta alokairua
Arropa eta osagarrien gunea**

www.kateabike.com



Bidasoa 76, BERA | 948 382 682 | joxemi@kateabike.com





Maddi Lasarte –ezkerrean– eta Julia Artieda, lehiaketan saritutako kartelak eskuetan. A. ABASOLO

rregatik, ez nekien ze gai aukeratu, zein kolore erabili, letren diseinua... Kartel bat egitea ez da erraza». Gaineratu duenez, «makil dantzari buruzko zerbait» egitea zerabilkien buruan, «nire herriko ohitura eta nire gustuko afizioa, dantza, elkartzuz». Eta halaxe egin zuen.

Lehenbiziko aldiz parte hartu du lehiaketan, eta irabazi egin du: «Orain irabazle izan naizela ikusita, hurrengo urteetan ere parte hartzeko asmoa dut». Eta horren harira, «azal lehiaketa adin guzietara zabaltzea eskertu» du: «Esperientzia hagitz polita izan da, eta heldu den urtean jende gehiago animatzea gustatuko litzaidake».

Azal lehiaketa hizpide hartuta, ez du atzendua zinegotziak berria eman zion goiz hura: «Ernatu berria nintzen deitu zidanean. Amatzik hartu zuen telefonoa eta niri pasatu zidan, zinegotzietako bat zela erranez. Kartelari buruzko zerbait izanen zela espero nuen, baina ez nuen espero hamazazpi kartel horien artean nirea irabaz-

le izanen zenik». Sorpresa handia izan omen zen: «Ez nuen espero. Parte hartzaile batzuk nor ziren ikusita, aukera guttiago ikusten nuen. Eta irabazlea nintzela erran zidanean, batez ere, poza sentitu nuen».

Lehiaketa irabaztearen truke, sari potoloa hartu du Berako gazteak, «diru aunitz», bere hitzetan. «Oraindik ez dakit zer egingen dudana sariarekin». Hala ere, hortik haratago joan nahi izan du eta «diseinuari garrantzi handiagoa» ematen diola esplikatu du: «Pozik handiena nire irudia Berako etxe guzietan egonen dela jakiteak ematen dit».

Orain, gaueko besta nahiago

Gainerakoan, bestetako «egun guziak politak» iruditzen zaizkio Lasarteri, baina aukeratzeko eskatuta, San Esteban egunaren alde egin du: «Giroa egun guzian izaten da eta egun hori, beratarrontzat batez ere, berezia izaten da. Banderaren dantza, bordon dantza, makil dantza, aurreakua,



LENKONEA JATETXEA

BERAKO BESTETAKO MENUA 2026
Abuztuak 2 eta 3 (*)

47 €
BEZa barne

Hasteko Urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin
Foie micuit bloka sagar konpotarekin
Txangurruz betetako krepea amerikar saltsarekin

Jarraitzeko Legatz solomoa saltsa berde bereziarekin
eta barazkiekin
Entrekota plantxan ondoko eta patata habiarekin

Etxeko postrea Mango- eta mugurdi-moussezko tarta,
Amande ezizko izozkiarekin

Bukatzeko Lenkonea konbinatuak dasta ditzakezue.
Nafarroako jatorri-izendapeneko ardoak
Navascal ardo beltz ondua, Irati zuria eta gorria
Ura eta kafea

*Abuztuaren 4, 5 eta 6rako, 38 €-ko menua dugu, BEZa barne

T. 948 625 540 | **744 752 150** | www.hotelchurrut.com
Foruen plaza | BERA (erdian)



**HONDARTZA, KANPIN
ETA LORATEGIRAKO
BEHAR DUZUN
GUZTIA!**

**BERTAN EGINDAKO
PRODUKTUAK**

www.alcopolas.com



Zalain auzoa, z/g. - Pk. 4., 31780 - BERA
Tel.: +34 948 628 200 | alco@alcopolas.com

LIXOIA
OSTATU - JATETXEA
ONGI PASA BESTAK
Itzea, 2 - 31780 BERA - 948 631 271

Guillermo LARRAÑAGA
doktorea

**KIRURGIA
KARDIOBASKULARRA
FLEBOLOGIA
LINFOLOGIA**

Barizeak
Kirurgia integrala
Ekografia kardiobaskularra
Tratamendu estetikoak
Zainetako ultzerak
Gaixotasun linfatikoak



M. 610 549 507

Centro Médico Bera
San Esteban, 17 | BERA

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA
Pintura orokorrean
Barrualdeak eta fatxadak
T. 666 235 466

Ansonea ostatu · jatetxea
Ongi pasa bestak!
T. 948 63 01 07 | Foruen plaza, 1 | BERA

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
 ① Bidasoa, 76 - 31780 **BERA**
 ② 948 63 10 27 ③ 670 598 560
 ④ info@tabernaedariak.eus
 ⑤ www.tabernaedariak.eus

regina tolosa
FISIOTERAPEUTA
ongi pasa bestak!
K-STRETCH Indarra, oreka eta mugikortasuna lantzen ditugu
 Ongi sentitu, konfiantza irabazi eta mugimenduan bizi!
Tel. 948 625 206 San Esteban, 17 Behea | BERA

OINLUR
 Reflexología **BERA**
 Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa orekatzen ditu.
 Gorputzaren funtzionamendu egokiari laguntzen dio.
 Immunitate-sistema sendotzen du.
 Odol-zirkulazioa aktibatzen du.
 Ansietatea gutxitzen du eta estresa hobetzen du.
Lourdes Párraga
 ☎ +34 623 98 19 88 | @oinlur | onilur@yahoo.com



Maddi Lasarte Barredo ttikitan Berako bestetan. UTZITAKOA

bandaren kontzertua... Egun horretan zer ikusi edo zer egin izaten da. Baina batez ere, familiarekin elkartzeko aukera ematen duelako eta ekitaldiz betetako eguna delako gustatzen zait.

Eta ekitaldirik gustukoena zein ote du? Aukeratzea «zaila» egin bazaio ere, «aurrekua» aipatu du: «Dantzari eta ikusleen artean sortzen den giroa ederra izaten da. Ttikitatik joan izan naiz ikustera eta betitik gustatu izan zait. Hala ere, egunero egiten den larrain dantza ere aunitz gustatzen zait, adin guzietako jendea biltzen delako».

Aipatu dituen ekitaldirik kuttunenak egunekoak ditu, baina onartu du «gaueko besta nahiago» duela, «lagunekin ongi pasatzeko aukera gehiago dagoelako eta nire adineko jendearentzat giro gehiago egoten delako».

Lehen, eguneko ekitaldietan

«Gaur egun, denbora gehiago lagunekin pasatzen dut bestetan», erran du. Baina haurra zenetik «bizi» izan ditu herriko bestak. «Nire familian

herriko bestak eta ohiturak beti izan dira hagitz garrantzitsuak. Gurasoak beti ibili dira saltsaren batean: ama bandan eta abesbatzan ibiltzen da; atta, orain dela gutti arte, danborradako gidaria izan da, eta nire anaia eta ni, tikiak ginenetik, erraldoien bueltan ibili gara». Badu orduko anekdota bat: «Ttikitan, azken egunean, beti erraldoiak agurtzera joaten nintzen, eta Lamiari nire txupetee-tako bat eman nion». Eta haur denborako bertze «oroitzapen polit» bat ere kontatu du: «Gurasoen kuadrillekin elkartzen ginenekoa. Gurasoen blusak jaunzea gustatzen zitzaidan». Eta nola diren kontuak. Aurten berak berea estreinatuko du bere kuadrillarekin: «Gero gerokuk gure kuadri-

«Nire familian herriko bestak eta ohiturak beti garrantzitsuak izan dira. Gurasoak beti ibili dira saltsaren batean»

asegi asesorías Zergalan
 www.zergalan.es
 zergalan@asegi.es
 www.asegi.com

Kontabilitate zerbitzuak | Zerbitzu fiskalak | Lan-aholkularitza
 Aholkularitza juridikoa | Herentzia eta Testamentuak
 Datuen babesa | Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
 Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

ELIZONDO Baztanberri pl., 6 - 31700 T. 948 581 300 F. 948 580 648	BERA Eztegara, 22 - 31760 T. 948 631 108	DONEZTEBE Eliza Kalea, 22 - 31740 T. 948 450 395 F. 948 451 304	LESAKA Eltzeta, 3 - 31770 T. 948 638 077
---	---	---	---



Maddi Lasarte bere lagunekin, makil dantzetan. UTZITAKOA

Ilako blusa estreinatuko dugu». Ez hori bakarrik. Makil dantzak dantzatzaren ere ibiliko da eta Gure Txokoa Dantza taldeko emanaldian ere parte hartuko du: «Lehen makil dantzak ikusten egoten nintzen, eta orain bertze modu batera bizi ditut: ez naiz ikuslea, dantzaria baizik».

Eta bukatzeko, bere kartelaren aldeko botoa eman zuten «herritar

guziei eskerrak emanez» borobildu nahi izan du, eta bidenabar, «bestak ongi pasatzeko» mezua bidali die beratarrei. Bisitariei, berriz, «Berako bestetara etortzeko gonbita» egin die: «Giro ederra izaten da. Adin guzietako jendearentzat bada zer egin eta hemengo ohiturak eta ekitaldiak ezagutzera etortzeko aukera paregabea da». Tartean ibiliko da bera.

Zelaieta

Okindegirako makineria

Zalain auzoa, 19 - 31780 BERA
T. 948 631 004 | info@zelaieta.com
www.zelaieta.com



Besta gozo eta
zoriontsuak opa
dizkizuegu

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA



ZUBIONDO

JATETXEA-SAGARDOTEGIA

zubiondojatetxea.com

ONGI PASA BESTAK!

Alasta karrika • BERA | T. 948 625 472

BIDASOA

GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

**GASOLIOA
ETXERA**
eramaten dugu

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak



24h-ko asistentziak errepideetan

IAT aurreko zerbitzua dohainik

Gasolindegia 24h irekita



609 446 693 - 679 204 872

bidasoa@neumaticosbidasoa.es

www.neumaticosbidasoa.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko



Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

**Ongi pasa
bestak!**



Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872



Jauzena
Instalazio elektrikoak

ELEKTRIZITATE LANAK
Erreformak, etxe berriak
Lantegietarako mantentze-lanak

948 631 217 | 630 136 863
Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
jaurenabera@gmail.com

EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK

ONGI PASA BESTAK!

ongi pasa bestak!

BRANDONEA, S.L.
PREZAK ETA BARRAZIAK

BILTEGIA:
948 630 102
SAKELAKOA:
633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

artatu
ONGIZATE ZENTROA

Oihana Elzaurdia Ariztia
(633 788 323) Fisioterapia

Julen Errandonea Martin
(623 11 02 58) Prestaketa fisikoa

Irantzu Piquero Rodriguez
(722 47 46 53) Vinyasa yoga - Yoga dinamikoa

Tel.: **633 788 323** | artatubera@gmail.com
San Esteban kalea 21, behea

Ongi pasa bestak!

xulufraia
moda-opariak

Ongi pasa bestak!

Altzate, 18 • BERA | 948 631 266 | @ f

«Gaur egun ere intsumiso izateko milaka arrazoi daude»

OSKAR GOÑI PETRIRENA ETA JOXI IRATZOKI AGIRRE INTSUMISO OHIAK

G. Pikabea BERA

Luka Remiro, Oskar Goñi, Tobi Ruiz, Joxi Iratzoki, Patxi Jorajuria, Ramon Telletxea, Edurne Elizondo eta 1987ko udal ordezkariak. Horiexek izanen dira Berako beste hasiera emateko txupinazoa botako dutenak. «Euren jarrera antimilitaristarekin eta indarkeriarik gabeko desobedientzia zibilarekin arrastoa utzi duten beratar aipagarriak» direlako egin nahi izan die aitortza Berako Udalak.

Luka Remiro Global Sumud Flotillan ibili den ekintzailea da; Oskar Goñi, Joxi Iratzoki, Tobi Ruiz, Patxi Jorajuria eta Ramon Telletxea, berriz, soldaduskari ezetz erran zioten intsumisoak. Edurne Elizondok intsumisioaren borroka ezagutarazteko *Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* liburua egin zuen. Eta 1987ko Berako Udala soldaduskara joateko herritarren zerrenda tramitatzeari uko egin zion estatuko lehen-biziko herriko etxea izan zen.

Horietako birekin bildu da TTPI-TTAPA, Oskar Goñirekin eta Joxi Iratzokirekin. Intsumiso izan ziren biak, eta mahaiaren bueltan mintzatu dira «mugimendu handiko» garai hartaz. «Oroitzapen onak» dituztela eta «aunitz ikasi» zutela diote eta «gaur egun ere, intsumiso izateko milaka arrazoi» daudela konbentzituak daude.

25 urte soldaduskarik gabe

Aurten beteko dira 25 urte Espainiako armadan derrigorrezko soldaduska desagertu zela, «baina gu saltsan ibili ginenetik 30 urte baino gehiago pasatu dira». Hala oroitu dute Iratzokik eta Goñik. Batak zein bertzeak ez zuten dudarik izan momentua ailegatu zitzaizenean; «hagitz garbi genuen». Hasteko, «soldaduska gaizki ikusia» zela aipatu dute eta Goñiri orduko pasadizo bat etorri zaio burura: «14 urterekin Ibardinen lanean hasi, eta oroitzapena dut gu baino zaharragoa zen mutiko bat egunero negarrez joaten zela urdaiazpikoa mozteko makinara, soldadu ez joateko behatza moztu behar zuela erranez. Gaztetatik pentsatzen genuen 'Horrek hagitz txarra behar dik, jendea hola jartzen denerako...'. Baina hortik haratagoa zen ezetz errateko arrazoi nagusia: «Gurea ez den nazio bati zerbitzatzeri behartu nahi gintuzten», dio Iratzokik. Eta Goñik honela: «Gatazka politikoa puri-purian zegoen garaia zen eta abertzaleon ikuspuntutik kristoren kontraesana zen: zanpatzen gaituen armada defendatzeri? Ez zuen ez hanka eta ez buru».

Ehunka eta ehunka gazte mugiarazi zituen intsumisioak Hego Euskal Herrian, eta eskualdean ere «mugi-

caveo

ongi pasa bestak!

Bidasoa, 78• BERA
Tel.: (+34) 948 62 50 20
Fax: (+34) 948 63 10 01
www.caveoautomotive.com



Oskar Goñi Petrirena eta Joxi Iratzoki Agirre beratarrak. TTPI-TTAPA

mendu handia» sortu omen zen: «Kakitzat, KEM-MOC, Jarrai... Talde eta mugimendu aunitz sortu ziren. Guk, adibidez, Kakitzatekoen bitartez lortzen genuen informazioa eta BAT izenarekin [Bortzirietako Antimilitarista Taldea] sinatzen genituen idatziak. Gehiago mugitu ginenak eta ondotik preso hartu gintuztenak hiruzpalau izan ginen, baina intsumisioak herri sustengu handia izan zuen, iritzi publikoan onespen handia».

Intsumisioen borrokari, objektzioa egin zutenen zerrenda luzea gehitu zitzaion: «Gazteek *hordagoa* jo zuten, eta estatuak pasiboan aterabidea sustatu zuen: objektzioa». Argitu dutenez, «eztabaida sortu zen, baina intsumisioaren mugimenduak ez zuen objektzioa etsaitzat hartu. Mezua argia zen: Etsaia armada da, Espainiako administrazioa eta armadara bultzatu nahi gaituztenak. Objektore egiten zirenek ez zuten borrokan inplikazio goren,

baina soldaduskaren kontra zeudela erraten genuen. Gainera, gero eta intsumiso gehiago izan ginen, eta objektzioarena esponenziala izan zen. Beran, adibidez, suhiltzaileen parkea egin berria zen, eta jendea horratz apuntatu zen. Soldaduskatik libratzeko modua bertzerik ez zen».

Eta aunitzek uste zutenaren kontra, borrokak bere fruitua eman zuela dio Goñik: «Frankismotik heldu ginen eta gure gurasoen belaunaldiarentzat soldaduska totem ukiezina zen». Badu, gainera, horri lotutako anekdota bat: «Intsumisioaren inguruan, Toki Onako ikasleei hitzaldi bat ematea lortu genuen. Urte baten edo biren buruan, 22 urtera arte ikasten segitzen ez bazuten, soldaduskara joan beharko zutela esplikatu genien. Soldaduska zer zen eta ze aukera zituzten kontatu genien; mugimendu antimilitaristaren guttieneko helburua soldaduska kentzea zela, eta azken helburua



- Testu liburuak
- Bulego eta eskola materiala
- Joko hezigarriak
- Oparitzeko artikuluak

Pizzio

tabako-denda 2. zbk

ongi pasa bestak!

Altzate, 26 · Tel. 948 630 788 · 31780 Bera

zalain
JATETXEA RESTAURANTE



Bestetan lasai ibiltzeko garraio zerbitzua eskaintzen dugu:
21:00-01:00

Txupinazo egunean
eguerdian ere bai

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalain.com



ongi
pasa
bestak!!

Sara Kafetegia

UDAKO ORDUTEGIA
(Ekainaren 24tik irailaren 1era)

Astelehenetik igandera:
07:30-13:30 | 17:00-21:00

Hurlandeta, 6 BERA · 948 625 673

 **ugaldea**

ONGI PASA BESTAK!

AHOLKULARITZA FISKALA KONTABLEA
ASESORIA FISCAL CONTABLE

www.ugaldea.com

Rafa Pombar Sainz

Sara karrika 1, 31780 BERA (Nafarroa)
tel.: 948 63 02 01 | e-mail: ugaldea@ugaldea.com



ongi pasa
bestak!

hirukide

Eguzki panelak | Iturgintza
Industria mantenimendua
Aire egokitua

T./F. 948 625 395

Alkaiaga ind. | Alasta, 4-6 Behea | 31770 LESAKA

Goieko
GOI MAILAKO EKOLOGIA

Ongi pasa bestak!

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36

Gora Bestak!
Biba Sanestebanak!

lagunak diren lekuan,
beti dago besta!

bortzirudi
in primategia

kopistegia · rotulazioa · serigrafia · papertegia

948631521 · bortzirudi@gmail.com asterleheneratik ostirala 9:30etatik 13:30etara

MENDIKO
JATETXEA

Sagardotegiko menua eta karta
EGUNERO IREKITA

Ongi pasa bestak!

Ibardin-BERA
www.mendikoibardin.com
☎ +34 699 810 870

larreta lanak sl

IGELTSU PROIEKTATUA
PLADURRA
ISOLAMENDU TERMIKOA
ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Bera - Nafarroa
www.larretalanak.com | larretaigeltsu@gmail.com
Gorka Arretxea 627 225 514
Juanen Saralegi 637 921 299

ELIZALDE

Benta | Ostaturia | Jatetxea

Besta on batzuk pasa!

948 631 024 | Ibadin | BERA

armada guziak desagertzea. Eta gogoan dut 'Guk kartzelan ordainduko dugu, baina gure seme-alabek ez dute soldaduskara joan beharrik izanen' esaldia bota nuenean, irakasleek irri egin zutela, inozenteak ginelakoan». Eta nola diren kontuak; hala erran zuten, eta hala izan da. Soldaduskari planto egiteagatik bi beratarrak kartzelan sartu zituzten 22 urterekin; Goñi «hilabete batez» eta Iratzoki «borzpasei egunez»; biak «lehenbiziko Iruñeko kartzelan, eta ondotik, Martutenen». Baina hitzaldi hartan aitzindu bezala, euren ondorengoek ez dute soldaduskara joan beharrik izan. «30 urte pasatu dira eta oraingo gazteek ez dakite soldaduska zer den. Gauza batzuk galdu dira, eta bertzeak irabazi, baina soldaduska egin behar ez izatea kristoren lorpena izan zen».

Ez zen hori izan lorpen bakarra: «Gazteria mugiarazteko balio izan zuen. Aunitzentzat herrigintzan mitlatzen hasteko modu bat izan zen». Goñik bere kasua kontatu du: «Nik, kartzelara sartutakoan, askatasuna ezagutu nuen. Txaboloa euskal preso politiko batekin konpartitu nuen, eta patioan jende jauntzi aunitz tokatu zitzaidan. Hura askatasunaren unitbertsitate bat izan zen niretzat».

Kartzelako egonaldiaaren harira, drogaren bueltan egindako lanaz ere aritu dira: «Hiesaren garaia hasi berria zen. Sistemak espetxean ez zela drogariak erraten zuen, baina

bazen, eta aunitz, heroina pila. Preserbatiboak banatzen hasi ziren, baina Hiesa ez zen sexu harremanengatik zabaltzen ari. Edozein gauza erabiltzen zuten droga sartzeko: boligrafoak, orratzak, modu txarrean konpartitutako xiringak... Sistemak bazekien, baina bertze aldera begiratzaren zuten. Euskal Herrian hainbertze heroina izatea ez zen kasualitatea. Batetik, sistema zanpatzaileak euskal gazteria desaktibatze sartzu zuten, eta bertzetik, kondena tikiiekin sartzu zen jendea bizi guzirako markatua ateratzen zen: gaitz kroniko batekin edo heriotzara kondenatua. Hori salatu eta Martuteneko espetxean xiringak banatzea lortu genuen. Hori guzia ikasketa prozesu bat izan zen».

Eta gaur egun zer?

Miresmenez mintzo dira orduko mugimenduak, «oroitzapen onak» dituztela eta «hagitz harreman onak» egin dituztela erranez. Gaur egun, ordea, «gizartea orokorrean aldatu» dela eta «jendea pila bat erlaxatu» dela iruditzen zaie. «Alde batetik, haur guttiago dira. Gu ikaragarri kinto kopuru handiak ginen. 1972koak, adibidez, 80 bat izanen ginen Beran, eta 80an ehunera ailegatu ziren. Baina geroztik, beheiti egin du. Bertzetik, gizartea aldatu da eta bakoitza berera dago. Haurrak inoiz baino prestatuagoak daude, baina karrikako mugimendua falta da, zerbait lortzeko elkartzeko joera hori falta dute».

Horrekin batera, «intsumisioa gaurkotasuneko gaia» dela azpimarratu dute. Iratzokiren hitzetan, «mundua nola dagoen ikusita, gero eta kontentutago nago eman genuen pausoarekin eta egin genuen lanarekin. Mundua desmilitarizatu behar da eta gero eta

**«Gauza batzuk galdu
dira eta bertzeak irabazi,
baina soldaduska egin
behar ez izatea kristoren
lorpena izan zen»**

Ongi pasa bestak!

Osatzuz

Psikologia-Psikoterapia
Garbiñe Goia Iratzoki

HAURRAK / NERABEAK / HELDUAK

Tel.: 619 343 755
g.g.irazoki@gmail.com

AINHOA ALTZUGUREN MITXELENA
ABOKATUA

Dibortzioak
Kontratuak
Arazo administratiboak

ZERBITZUA EUSKARAZ

BERA | M. 630 972 189
ainhoaaltzuguren@gmail.com



Martiko

Momentu Handien Zaporea

BOUTIQUE MARTIKO

ASTELEHENETIK ORTZIRALERA 9:00etatik 17:00etara

WWW.MARTIKO.COM

ONGI PASA
BESTAK



ALBISU

HORTZ KLINIKA

Bidasoa, 2 - Bera

Tel. 948 631 631



BESTETAKO MENUA 2026

Sarrerakoak:

Bokeroiak | Ahate Bloka
Txistorra | Kroketak
Gula eta ganba entsalada

Aukeratzeko:

Masailak
Txuleta
Bildotsa
Bakailaoa saltsa berdean
Txipiroiak
Ahate izterra konfit-eran

Postrea eta
edaria barne

*ongi pasa
bestak!*

42€

Erreserbak: **848 477 135**

Illekueta, 11 - BERA



Ongi pasa bestak!

**KOADRO ELEKTRIKOAK BERRITZEA
MATXURA ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOAK
MOTOR ELEKTRIKOAK**

BERA | 722 287 269 | argitusl@gmail.com

argiago dut ze beharrezkoa den. Aldi berean, gaur egun hainbertze gauzetan intsumiso izan behar genuke».

Goñi ere uste berekoa da: «Hizkuntzari dagokionez, intsumisioa hala-koaren aitzinean euskaraz solas egiten duena da, edo guk, beratarrek izanda, muga desegin beharko genuke». Bere irudiko, «arraza edo erlijio jakin batekoek ezin dutela muga pasatu erratea gezurra da. Beltza edo musulmana bazara eta hiru milioi euroko auto bat baldin baduzu, muga lasai ederrean pasatzen ahalko duzu. Afrikatik oinez edo txalupatan heldu direnak gelditzen dituzte, dirurik ez dutenak... Eta horren kontra lan handia egiten duten herritar horiek ere gaur egungo intsumisioak dira. Intsumisioa, azken batean, borroka tresna bat da». Goñiren ustez, «zantpaketa aunitzek oinarrian zantpaketa militarra dute. Gu zergatik gara espainolak? Eta korsikarrak zergatik frantsesak? Zer gertatzen ari da Palestinan, Kuban, Venezuelan...? Batzuk bertzeak zantpatzen ari dira. Eta Espainia paradoxa bat da. Estatuko agintari gorena ezin da aukeratu eta bera da Espainiako armadako burua. Gure gizarte zantpatzaile hau militar-ki eta bertikalki egituratua da eta demokrazia antzerki hutsa da».

Berako beste begira

Kontuak kontu, aurtan txupinazoa botatzeko aukera izanen dute. Iratzo-

kik onartu duenez, «ez naiz jende aitzinean atera zalea, nahiago dut gibelean gelditu», eta Goñik «ni ere gero eta guttiago», erran du; «garai batean soberaxko ibilia naiz eta orain batere ez». Hala ere, abuztuaren 2ko eguerdian herriko etxeko balkoian izanen dira. Goñiren ustez, «urteak betetzeagatik txupinazoa botatzeak ez du meriturik, baina gazteek zerbait ikasteko baldin bada, ongietorria izan dadila. Gainera, Luka gonbidatuta, Palestinako aferarekin lotu dute, eta bete-betean asmatu dute».

Eta txupinazoa bota ondotik zer? Iratzokik «bestak lasai-lasai» pasatzeko intentzioa du: «Badituzte 25 urte kanpoan bizi naizela eta lagunekin egoteko aitzakia da bestetan Berara etortzea. Lagunekin otordu eder bat egin eta gutti gehiago eginen dut; igual pilota partidua ikusi eta herrikoen kontzerturen bat baldin bada harat joan, bakillak ere gustatzen zaizkit...». Goñik «besta ez eginaren damurik ez dugu», aitortu du, eta «13 eta 20 urte bitarteko lau seme-alabaren guraso izanda, euren laguntza logistikoa ematea» tokatzen zaiela onartu du. Eta hortik goiti, «lagunekin otordu bat edo bertze, San Esteban egunean familiako bazkaria, ikastolako kantu bazkaria, ikastolako ostatuan txanda bat edo bertze... Baina ez dut neure burua estutzen. Lehen hagitx temosoa nintzen eta ekitaldi batzuk ez nituen galtzen. Orain, berriz, ez joanda ere, ez da deus pasatzen».

Egitarauari begira, euren gazte denboratik honat «ez dela aunitz aldatu» diote, baina bada zerbait berriz gustura ikusiko luketena: «*Kukana*». Berako besten «bereizgarri» izan dela iruditzen zaie, eta biek onartu dute «pena» dela *kukana*rik ez izatea.

«Gure gizarte zantpatzaile hau militar-ki eta bertikalki egituratua da eta demokrazia antzerki hutsa da»



Savera

Elevator System Solutions

ONGI PASA BESTAK

Beratik
mundura

Zalain auzoa, 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: +34 948 626 900 - Fax: +34 948 626 904
savera@saveragroup.com - www.saveragroup.com

Eiffel dorrea
Paris, Frantzia
330 m ko altuera

BERAKO
GIDAK
ERABILIZ
EGINA



BIOK

EXPERIENTIAL SHOPPING



GORA BERA KO

BESTAK!



Harategia



Arrandegia



Fruta eta barazkiak



Edariak

**BESTETAKO BAZKARIA
ANTOLATU BEHAR DUZU?
ZERBAIT FALTA ZAIZU DESPENTSAN?
USTEKABEKO BISITA DAUKAZU
ETXEAN?
OPARI BAT EGIN BEHAR DUZU?**

Zatoz gure supermerkatuetara, asteburuan ere zabalik daude.

EGÜNERO
IREKITA



IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE



ventabiok.com

Zalain

J A N A R I A K

ongi
pasa
bestak!

Zalain Ind. 42, beheha.

948 631 338
zalainjanariak@gmail.com



ONGI PASA BESTAK!

SUTEGI

BURNI LANAK

ERREMENTARITZA LANAK

ARROZTEGI METALIKOA

ATEEN AUTOMATIZAZIOA

ERREKA ZERBITZU TEKNIKOA

613 522 770 | BERA



TXALUPA ARRAINDEGIA SL

Eskaerak prestatzen ditugu:

Eguneko arrain freskoa

Itsaskiak | Izoztuak

Gazituak | Kontserbak

Kanttonberri, 3 | 31780 BERA

948 631 575 | 694 207 129

txalupa.rraindegia@gmail.com

«Bote luzea ikusi eta ezagutzeko aukera ederra da besta egunetan sartzea»

IZASKUN ZUBIETA ALBISTUR BOTE LUZEAN ARITZEN DEN BERATARRA

Leire Mihura BERA

Beratarra da Izaskun Zubieta Albistur, bere hitzetan, «pertsona alaia eta irekia, nahiz eta hasieran lotsati xamarra izan». Horrez gain, «familiaren eta lagunen konpainiaz gozatzea gustatzen zaiona». Hori horrela, aurtan ere, herriko bestak gozamenerako egun aproposak izanen dituela jakitun da: «Egia erran, gogotsu nago bestak ailegatzeko». Gustatzen zaizkio sanestebanak, eta bere iduriko «egun politak» dira: «Lagunekin zenbait otordu, dantzak, txaranga... herria giroz eta jendez betetzen da, eta egunero ateratzen saiatzen naiz».

Gainera, besten aitzineko egunetan ere hasiko da herria mugitzen eta bestak heldu direnaren seinale, bote luze erakustaldia antolatua dute abuztuaren 1erako. Horretara ere Zubietak ez du hutsik eginen: «Urte aunitzez bai futboleak, dantza taldeak eta baita palan ere aritu naizen bezala, orain bote luzean murgilduta nabil». Izan ere, «taldekako aktibitateetan sortzen diren giroa eta harremanak gustatzen zaizkit»; eta jende berria ezagutu eta kirolaren bueltan harreman sanoak sortzeko «aukera paregabea» da bere iduriko. Besta egunetan bakarrik ez, eta egunerokoan ere maite du Berako



Izaskun Zubieta Albistur. UTZITAKOA

herria, are gehiago, «gustatzen zait Beran bizitzea». Bide batez, «aspertzeko eta geldirik egoteko aukera gutti» dagoela dio: «Zerbitzu aunitz bertan ditugun herri koxkorra da, eta kokaleku aldetik ere, hagitz ongi dagoela iduritzen zait, bai mendiak eta baita hondartza ere hurbil daudelako. Kultura eta kirol aldetik aukera dezente dago eta herriak berak ere bazter eta txoko politak ditu». Bide beretik, «naturaz gozatzea gustatzen zait, lasai aski erreka

Zurekin

DISEINUAK

Kanttonberri, 3 | BERA
T. 722 52 14 71

Ongi pasa bestak!

SUKALDEAK | LURRAK | ARMAIRUAK | ATEAK | TEILATUAK | EGURLANAK



KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA,
ETORRI IKUSTERA KONPROMISORIK GABE!



Izaskun Zubietak erran bezala, plaza jendez lepo egoten da txupinazo egunean. UTZITAKOA

bazterren batean edo ibili eta txoko berriak ezagutzea».

Herrian parte hartzea

Beran sortua eta Beran hezia, bere kasuan «beratarra» gainera; izan ere, beratarra sortu ez, egin egiten dela irizten baitio: «Hemen edo bertze herri batean egon, niretzat garrantzitsua da modu batean edo bertzean bizi zaren herriko ekitaldi desberdinetan parte hartu eta zure ekarpena egitea herriari, horrela herriaren parte izan eta sentitzeko». Hala eta guztiz ere, beratarren arteko eguneroko hartu-emanak areagotzea gustatuko litzaiokeela aipatu digu: «Iduritzen zait herriarren elkargune izaten ahal den plaza edo horrelako tokiren bat falta dela. Herrian bi plaza baldin badaude ere, ez gara hor elkartzeko. Talde bakoitza, haur, gazte, heldu... leku desberdin batean egoten da eta ho-

rrela ez da hain harreman estua lortzen».

Herriko bestetan, ordea, eguneroko martxak ez du apenas lekuri izaten eta plazak jendez lepo ageri diren irudiak ez dira harritzekoak. Hain zuzen ere, Zubietak erran digunez, «besten bueltan errazagoa da herriarrak elkartzeko». Eta bide beretik: «Eguneroko errutinatik ateratzeko aitzakia ederra dira herriko bestak». Erraterako, bote luze erakustaldiak errutinatik ateratzea suposatuz dezake, eta horren harira, horrelaxe dio: «Herriarrek ikusi eta ezagutzeko aukera ederra da».

Kasurako, berak bote luzea Herri Haitadari esker ezagutu zuela kontatu digu; iaz Zugarramurdi aritu zela lehenbizikoz eta Beran aurten: «Nesken parte hartzea bultzatu zuten, bertze lagun batzuekin probatu eta parte hartzera animatu nintzen, eta aunitz gustatu zitzaidan».



T./F. 948 631 557
Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA
posta: maziziorsenper@gmail.com

**EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA**

Toki Ona
Berako Udal Kiroldgia

Kirol bulegoa: 948 630 215 - info@sastrakokirola.eus

Ongi pasa bestak!

KALEFAKZIOA · GASA · ITURGINTZA
Tel.: 609 808 756 | BERA

Iturgintza lanak
Berokuntza
mota guztiak
Galdaren
instalazioak

“Baxi” markan
eskaintza berezia.
Eskatu
aurrekontua

BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN

ESKAINZA BEREZIAK!

Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!



JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

☎ 699 122 815 ✉ javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus



**GREMIOEN
KOORDINAZIOA**
Sunbilla, Nafarroa



**Etxebizitza berriak | Zaharberritzeak | Erreformak | Konponketak
Teilatuak | Harri eta hormigoi lanak | Mota guztietako igeltseritza lanak**

ONGI PASA
BESTAK!**sasoi**
eraikuntzakT. 948 451 596 | info@sasoi.eus
www.sasoi.eus**RECACOR**
BERA*Ongi pasa
bestak!***Zalain industrialdea, 5**
Tel. 948 48 71 91

Eta ez hori bakarrik: «Mendialdeko Bote luze Txapelketa antolatu du Nafarroako Euskal Pilota Federakuntzak lehenbiziko aldiz eta herri desberdinetako bestak aprobetxatuz, partidak antolatu ditu, bai nesken eta baita mutilen jardunaldiak ere jokatzeko». Bide batez, beratarrak parte hartzen ari direla dio, eta «gustura», gainera. Txapelketaren kontua, parte hartzen ari diren bertze herrietako taldekideekin harremana egiteko «hagitz aukera ona eta polita» baita bere us-tetan.

Bote luzea: euskal pilota modalitate zaharrenetarikoa

Ezagutzen den euskal pilota modalitate zaharrenetarikoa da bote luzea, gaur egun, luzeko pilota jokoa esku hutsean jokatzeko den bakarra. Hortaz, modalitatea mantendu eta indartzearen alde agertu da Zubietak eta eskualdean hura berreskuratu izana aitzinera pauso handia dela ziurtatu digu; txapelketa ofiziala antolatu izana are eta pauso handiagoa izanik: «Txapelketa bat antolatu izana pausu garrantzitsu bat da segida eman ahal izateko eta bide hortatik segitu behar dugula uste dut». Bidenabar, bote luzearen bizirautea, joko bat mantentzetik harago doan kontua delako: «Aritzen segitu beharra dugu, ez bakarrik kirol bezala, baizik eta kultura eta mugaz gaindiko harremanak sendotzen jarraitzeko ere, harreman horietan euskarak duen garrantzia ahan-tzi gabe».

Etorkizun hurbilera begira, Bera-ko bestetan jarria du begirada Zubietak eta nola disfrutatuko dituen pentsatzen hasia da: «Txupinazo

eguna aunitz gustatzen zait, eguerditi-k jende pila bat elkartzen gara txaranga eta gaiteroekin herrian barna buelta emateko, eta nabaritzen da jendea gogotsu eta animatuta dagoela. Adin guztietako kuadrillak elkartzen gara eta polita da; kantu bazkaria ere gustuko dut, kantua-z gozatzeko elkartzen baikara, giro bikaina sortuz» Hortaz sanesteban hauetan ez du guttiago espero: «Txaranga eta karrikako musikaz disfrutatuz besta eder batzuk pasatzea, lagun eta familia artean».

Eta behin bestak pasatuta, etorkizun urrunagora begira, bote luze-ari dagokionez, «orain arte lortutakoa mantentzea» ongi legokela adierazi du; «bai Herri Haitadari begira eta baita txapelketei begira ere». Are gehiago, bere hitzetan: «Bertze herrietakoekin lagun arteko partidak jokatzeko eta ondotik otordu baten bueltan bukatzea ere ez litzateke aukera txarra izanen». Bide batez, urte batzuren ondotik,, Zubietak argi eta garbi duelako: «Mahai inguruan harremanak beti hobetzen dira».

«Txupinazo eguna aunitz gustatzen zait, jende pila bat elkartzen gara plazan txaranga eta gaiteroekin»

«Lagun arteko bote luze partidak jokatzeko eta ondotik otorduekin bukatzea ez legoke gaizki»

*Elkarbizitzan eta errespetuan oinarrituz,
besta zoriontsuak opa dizkizuegu**Gora Berako bestak!*



BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!



idoiabeaute.com

IDOIA

BEAUTÉ

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Txepetxa
ONGI PASA BESTAK!
ALBAITARITZA KONTSULTA
CONSULTORIO VETERINARIO
Legia, 21 - BERA 948 631 362 | 688 723 460

PAGOLA
Harategia
ONGI PASA BESTAK!
Altzate Plaza, 2 · Bera · T.948 63 00 54 ☎ 722 84 12 85
www.carniceriapagola.es

LARRETKEA EGYRRAK
Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra
Ongi pasa bestak!!
Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427

IREKI LEIHOAK
T 948 630 962 | M 626 313 162 | H Zalaín Ind. 8, Bera
info@irekileihoak.com | W www.irekileihoak.com

- Aluminio R.P.T | PVC
- Kontraleihoak
- Toldoak
- Barandak eta balkoiak
- Ataripeen itxiturak

Guk lagunduko dizugu dirulaguntzak tramitatzen

«Guretzat eredu izan ziren bezala, datozenendako eredu izatea espero dugu»

GURE TXOKOA DANTZA TALDEA

Leire Mihura BERA

50 urteak beteak eta pasatuak ditu Berako Gure Txokoa Dantza Taldeak. Zenbaitzuk ez dute herria dantza talderik gabe ezagutu izanen eta ezagutu dutenei ere kostako zaie oroitzea, alegia, sanestebanak, inautek, auzoetako bestak eta gehiago Gure Txokoa Dantza Taldea gabe. Hala, hainbertze urte direla eta, irailaren 26an jarria dute begirada dantzariak: «Zenbait jarduera prestatzen ari gara egungo dantzariak eta dantzari ohiak elkartzeko asmoz». Halere, hurbilago ere begiratu behar izan dute azken asteotan, abuztuaren 3a ate joka dutelako eta herriko plaza bordondantza, makil dantzak eta aureskuaren zain.

Dantzariak Gure Txokoan, entsegu egin ohi duten lekuan, hitzordua paratua zuten eta ez dute huts egin. Maiz biltzen dira, dantatzeko normalean: «Helduen taldea entseatze-ko urte guztian zehar biltzen gara, ditugun ekitaldien arabera». Baina, oraingoan, dantzan aritu ez, eta dantzaz aritu dira: oinak geldirik eta dantza ahotan, arratsaldeko solasgaia. Nor diren galdetuta, «Berako herritarrak gara» erantzun dute lehenbizi eta horren segidan, «dantatzeko, ongi pasatzeko, herriaren ohiturak mantendu eta be-



Makil dantza haur eta helduek egiten dute.

rriak sortzeko eta transmititzeko» elkartzan direla gehitu dute.

200 dantzari

Beran haurretan euskal dantzetan hastea «ohitura» dela erran digute, eta beraien kasua ez da apartekoa izan: «Normalean ttikitatik hasten gara dantzatzen, gutako aunitz bortz urterekin hasi ginen eta orain arte segitzen dugu, helduen taldeko helduenak 27 bat urte ditugu». Egun, 200 bat dantzari osatzen dute dan-

MAITE
PELUQUERÍA MIXTA
Ongi pasa bestak!
679 493 099
948 630 483
Iturlandeta, 4-Behea
31780 Bera - Nafarroa



Emakumezkoak 2014an hasi ziren bordondantza dantzatzen. UTZITAKOAK

tza taldea 5 urtekoak ttikienak eta 40etik goitikoak ere helduenak izanik gutti goiti-beheiti, beteranoen taldea kontuan hartuta: «Betarenoen taldea orain dela urte batzuk osatu zuten eta arrakastatsua izan da, aurtan, adibidez, 15 pertsona daude». Ttikitan hasi eta urteak goiti egin ahala, guttiagok segitzea «normala» dela diote: «Egia da bizitzaren aldaketak direla medio, eta denborak aitzinera egiten duen horretan, bakoitzaren bertzelako ardurak dantzarekin uztartzea zaila dela». Eta beraiek «dantzatzea gustuko dugu-lako eta gure artean giro ona dugu-lako» segitzen dute. Alta, utzi eta bueltatzea ere, egun, aukera bihurtu dela esplikatu digute: «Ikusi ahal izan dugu beteranoen taldeari esker dantzei berriro eustea posible dela».

Maite dituzte euskal dantzak eta, halabeharrez, «ordu dezente» eskaintzen dizkiete: «Haurren irakas-

leak helduen taldekoak gara, eta bertzetik, urte osoko hainbat ekitaldi antolatzen ibiltzen gara: bes-tetako emanaldia, San Esteban Eguneako dantzak, Inauteetan Inude eta Artzainak, auzoetako bestetako dantza emanaldi ttikiak, Berako Dantzari Ttikia, bertze herrietako Dantzari Ttikiak...». Euskal dantzak Berako herrian ongi errotuta daude eta dantza taldekoek jakin, badakite beraiek direla orain tradizioa mantentzearen erantzule: «Ardura puntu bat badugula ere erranen genuke, aitzinekoek guregatik egin zuten lan horri segida emateko eta herriari dantzaz gozatzeko aukera eskaintzeko».

Aitzinekoek beraiegatik, eta beraiek heldu direnengatik, kate horretan beraiei emandakoa anitz izan dela ziurtatu digute. Izan ere, 2014a izan zen dantzeariendako mugarri, urte hartan hasi baitziren emaku-

bai
SEXISMORIK
GABEKO
BESTAK!

itsasoa hurbilagol
amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757 • Itzea, 6 • BERA

Luahi
ileapaindegia • estetika zentroa • solarium

T. 948 625 742
Eztegara kalea, 20 - BERA

Konektoma NEUROPSICOLOGIA

PSIKOLOGIA **LOGOPEDIA**

NEURO-PSIKOLOGIA **NEURO-ERREHABILITAZIOA**

*Ongi pasa bestak! eta
"Bizi poliki, gozatu denboraz"*

ESKATU HITZORDUA:
747 437 826

Bidasoa, 26 - 31780 **BERA**
konektoma18@gmail.com

ITZARGI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK | INSTALAZIO TEKNIKO INDUSTRIALAK
AUTOMATISMOAK | MOTORE ELEKTRIKOAK | MANTENTZE LANAK

ONGI PASA BESTAK!

☎ **722 822 693** | BERA

✉ **itzargisl@gmail.com**



Carlos Pacheco

**ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK**

Legia, 19 - BERA

Tel: 637 151 170

Gure ideia "bitxi" bihurtuko dugu



ONGI PASA
BESTAKI

Kalash
Bitxi-denda | Erloju-denda

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519



**MENDIKO
LANAK ETA
LOREZAINZA**

- ARBOL MOZKETA ETA KIMAKETA ALTUERAN
- ESKUZ ETA MAKINAZ EGINDAKO LURSAILEN GARBIKETAK
- HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA ETA KUDEAKETA
- ARBOLAK IPURDITIK ATERATZEA
- GUNE BERDEEN SORRERA ETA LOREZAINZA LANAK
- ITXITURAK PIKETEEKIN

ESKATU ZURE AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!

603 581 326 | BERA

Ongi pasa
bestak!

juanarboricultural@gmail.com | @darboriculturaljuanele

mezkoak bestetan plaza jendez lepo eta bordondantza eta makil dantzak dantzaten. 12 urte iragan dira ordutik: «Nahiko gaztetxoak ginen makil dantzak dantzatu genituen lehenengo urte hartan, 15 bat urte izanen zituzten gaur egun gure taldeko zaharrenek». Halere, oroitzen direnaz mintzatu dira: «Dantza taldean behintzat naturaltasunez bizi izan zen, baina jakin, badakigu herri mailan nolabaiteko oihartzuna izan zuela». Erabakia, aitzinetik «landua» eta «adostua» zegoela esplikatu digute eta hortaz, «abuztuaren 3a ailegatu zenean, naturaltasunez atera ginen neskak eta mutikoak dantzatzera».

Argi diote: «Aitzinera pausoa izan zen». Bere fruituak eman dituen aitzinera pausoa gainera: «Pauso hori eman zutenei esker, erran dezakegu gaur egun herriko dantzek bizirik segitzen dutela, batez ere, dantza taldeko ehuneko handi bat neskak garelako». Urteak pasatu dira eta plazak indarrez zapaldu dituzte: «Guk ere dantzatu dezake-

gula argi adierazi dugu eta mutilek bezala dantzatzeko gaur egun». Gaurkoaz harago, urteak aitzinera begiratu nahi izan dute eta beraien aitzinetik egon zirenen eta beraien ondotik egonen direnen artean kokatu dira: «Haiek guretzat eredu izan ziren bezala, gu datozen belau-naldiendako eredu izanen garela espero dugu, baita irekita dagoen ate hau ere inoiz ez ixtea. Denok dugu dantzatzeko eskubidea!».

Etorkizunera begira jarri dira eta Boisen egiten duten euskal bestan parte hartzea «amesten dutela» konstatu digute. Baina, herriko bestak izanen dituzte lehenbizi eta urteroko moduz, abuztuaren 3an, espartinak lotuta eta zuri eta gorritz jauntzita aterako dira herriko plazara. Ondotik dantzari eta musikari guziek afaria egingen dutela ere aipatu digute. Gogo nabaria dute eta dantzan segitzeko ilusioa ere bai. Herria bizirik mantendu eta bizirik sentiarazteko, dantza dutelako haien modua: «Dantzatzeko duen herria ez da inoiz hilko!».



Denera 200 bat dantzari dira Gure Txokoa Dantza Taldean. UTZITAKOA

**Berako bestetan
MENU BEREXIA**

40€



Etorri gurekin goatzera! Ongi pasa bestak!



BERA 2026

30 URTE ZUREKIN. ESKERRIK ASKO GURE HISTORIAREN PARTE IZATEAGATIK.

*Ongi pasa
bestak*



HISTORIAREN PARTE IZATEN

Gure 30. urteurrena Hiru hamarkada daramatzagu zuen ondoan, egunero lanean eta zuen beharrei erantzuten, ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko. Ibilbide hau posible izan da gure taldea osatzen duten pertsona guztien ahaleginari eta konpromisoari esker, baita gugan jarri duzun konfiantzari esker ere.

Eskerrik asko 30 urte hauetan gurekin egoteagatik eta gure historiaren parte izaten jarraitzeagatik.



IBARDIN | DANTXARINEA | BEHOBIA | LUZAIDE

Tel. +34 948 625 130 (Es.)

www.venta-peio.com





ALTZURI
MENDI LANAK · GARRAIOAK
SU EGURRA · PIKETEAK

SUNBILLA · T. 699461394 · 646298568 · www.altzuri.com



MARISOL
ONGI PASA BESTAK

JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608



LIZUN
GAZTANDEGIA
ONGI PASA BESTAK!

Sunbilla · Tel: 948 450 862



ARIZTIGAIN
RESTAURANTE · JATETXEA




BOKATAK
AUKERA ZABALA
Eskatu eramateko!!

PINTXOAK | RAZIOAK
· HANBURGESAK
· SANDWICH-AK
· PLATER KONBINATUAK
· MENUAK
ASTEAN ZEHAZ

31791 SUNBILLA
948 450 540 | 660 798 249 · 636 488 300
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

SUNBILLAKO EGITARAUA

**ABUZTUAK 7,
ORTZIRALEA**

19:00etan Matraka elektro txaranga.
21:00etan Arno ganadutegiko betizuak.
23:00etatik 05:00etara AntroRock musika jaialdia Askazi, Leihotikan eta Garaitezin taldeekin.

**ABUZTUAK 8,
LARUNBATA**

12:00etan suzeria Herriko Etxetik erraldoiek, buruhandiek eta Elutxa txarangak alaiturik. **18:00etan** pilotari profesionalen arteko partidak. **19:30ean** kalejira Irulegi trikitixa eta pandero eskolaren eskutik. **21:30ean** zopak Ulibeltzak elkartearen Elutxa txarangak alaiturik. **Gauean** dantzaldia Eztitan taldearekin.

**ABUZTUAK 9,
IGANDEA**

09:30ean diana. **11:00etan** boneta eta zapatila tiraketa plazan. **Goiz eta arratsalde** txu-txu trenea ibiliko da herrian. **18:30ean** XXIII. Ramon Latasa Saria. **21:00etan** zezensuzkoa plaza inguruan. **20:00etatik 22:00etara** eta **00:00etatik 02:30era** dantzaldia Beñatekin eta Fernandorekin.

**ABUZTUAK 10,
ASTELEHENA**

09:30ean diana Elizondoko gaita jotzaileekin. **11:00etan** plater tiroketa Olegin. **11:30etik 13:00etara**

erraldoien eta buruhandien kalejira Elizondoko gaita jotzaileekin. **13:30ean** guraso elkarteak antolatutako bazkaria. **14:00etan** kuadrillen bazkaria Ulibeltzak elkartearen. **Bazkalandoan** ura-ura Elutxa txarangarekin. **19:30ean** tortilla eta postre lehiaketa. Segidan, pintxo eta sagardo dastaketa plazan. **20:30etik 02:00etara** dantzaldia J&J Djrekin. **21:00etan** zezensuzkoa plaza inguruan.

**ABUZTUAK 11,
ASTEARTEA**

09:30ean diana Elizondoko gaita jotzaileekin. **11:00etan** meza. **12:15ean** Sunbillako dantzarien emanaldia eta **ondotik** luntxa plazan. **17:30ean** frontenis txapelketako finalak. **18:00etan** mutxikoak plazan. **19:00etatik 20:00etara** poneyak Ulibeltzak elkarte pareko belagian. **20:00etan** Arno ganadutegiko betizuak. **21:00etan** zezensuzkoa Harbiztin. **20:00etatik 22:00etara** eta **00:00etatik 02:30era** dantzaldia Joxpa erromeria taldearekin.

**ABUZTUAK 12,
ASTEAZKENA**

09:30ean diana Sunbillako txistulariekin. **10:00etan** mus txapelketa. **11:00etatik 13:00etara** eta **16:00etatik 18:00etara** haurrentako jokoak Monstruos M.A.rekin. **17:30ean** toka, aitzur eta zartagin jaurtiketa igerileku ondoko belagian. **20:30ean** zezensuzkoa Harbiztin. **21:30ean** herri afaria Ulibeltzak elkarteak antolatuta. **Afalandoan** musika Chuchineta Luzianorekin.



Herriko dantzarien emanaldia abuztuaren 11n izanen da. UTZITAKOIA

«Hagitz polita da zure ikasle izan direnak plazan dantzan ikusten dituzun momentua»

MAIALEN MARITXALAR IBARRA ETA HAIZEA LARZABAL ARRIOLA



Sunbillako haurren eta gaztetxoek dantzako irakasleak izan dira.

Eneritz Iraola SUNBILLA

Hiru urterekin jantzi zituzten espartzinak lehenbizikoz eta geroztik, hamaika dantza egindakoak dira Maialen Maritxalar Ibarra eta Haizea Larzabal Arriola sunbieldarrak. Sunbillako eta Doneztebeko dantza taldeetako kideak dira eta aurten herrian euskal dantzen irakasle ere izan dira: «Mantendu beharreko tradizio bat dela pentsatzen dugu eta gogotsu eta ilusioz aritzen gara guk dakigun horretatik bertze irakusten». Ongi gogoan dute nor izan zuten

dantza irakaslea: «Lehenbiziko sei urteetan Mari Cruz izan genuen irakasle eta dantza tradizional dezente ikasi genituen». Handik gutxira etenaldi txiki bat egin zuten: «Bederatzi eta hamabi urte artean dantzatu gabe egon ginen, irakaslerik ez genuelako. Hamabi urte genituenean Kristobal etorri zen herrira dantzak irakastera» Handik urte batzuetara ez zuten lortu Sunbillan taldea osatzea eta horregatik, auzoko herriko dantza taldean hastea erabaki zuten: «geroztik, Doneztebeko Erreka dantza taldeko kideak gara».

ukulu
inmobiliaria

Lekueder karrika 16, Sunbilla

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

INGURU ELEKTRIKOA
KANTZAKO OINAK
DOROTIKA
EKOIZKI PANELOAK

Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

sasoi
eraikuntzak

T. 948 451 596 | info@sasoi.eus
www.sasoi.eus

IRURI
MOTOR

ONGI PASA
BESTAK!

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua


www.irurimotor.com
T. 948 450 399 · 622 656 280
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA



FONDA
OSTATUA

DONIBANE, 7
SUNBILLA

Ongi
pasa
inauteriak!



SUNBILLAKO UDALAK
Besta zorientsuak opa dizkizue
sunbieldar eta bisitari guztioi
GORA SAN TIBURTZIO !

larreta lanak sl

IGELTSU PROIEKTATUA
PLADURRA
ISOLAMENDU TERMIKOA
ISOLAMENDU AKUSTIKOA



Bera - Nafarroa
www.larretalanak.com | larretaigeltsua@gmail.com
Gorka Arretxea 627 225 514
Juanen Saralegi 637 921 299

Bustitz ostatua
Ongi pasa bestak!

PINTXOAK • RAZIOAK • BOKATAK
HAMAIKETAKOAK • KAXULAK

T. 948 627 919 - Leku Eder - SUNBILLA

BIDASOA
GURPILAK • GASOLINDEGIAK
1993 ERRETA

609 446 693
948 625 663
bidasoa@neumaticosbidasoa.es

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi kalea 6 - LESAKA

Ongi pasa bestak!

Espelosin
Construcciones • eraikuntzak

- Eraikuntza berriak
- Zaharberritzeak
- Teilatuak

Eta gehiago ...

Ongi PASA BESTAK!

SUNBILLA • 619 416 959
www.espelosin.com

Ongi pasa bestak!

JP INSTALAZIOAK
ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIEN FINANTZAKETA

679 35 49 47
jpinstalazioak@gmail.com

ITURGINTZA - BEROKUNTZA
EGUR ETA PELLET GALDARAK
GASA | AEROTERMIA
EGUZKI PANEL FOTOVOLTAIKOAK

Ikasle izatetik irakasle izatera

Dantza ikasle ez ezik, irakasle ere badira orain: «Sunbillako dantza taldea irakaslerik gabe gelditu zen eta irakasleak izateko proposamena egin zigutenean ilusio handiz hartu genuen». Hiru eta hamabortz urte arteko, 40 ikasle izan dituzte eta esperientzia «hagitz ona eta polita» izan dela diote. Ikasle izatetik irakasle izatera pasatzea «dezenteko aldaketa» izan den arren, «haurrekin hagitz ongi» moldatu direla gaineratu dute. Batez ere euskal dantza tradizionalak landu dituzte: «Ttikiei betiko dantza tradizionalak erakutsi dizkiegu, adibidez, txapelo edo sorgin dantza. Koxkorrekin eta gaztetxoekin pixka bat gehiago espermentatu dugu eta fandango eta arin-arinekin animatu gara».

Ekainean egin zuten jendaurreko emanaldia, urtean zehar egindako lana plazaratuz: «Aitzineko astea nahiko urduri pasa genuen, baina emanaldia hagitz ongi joan zela uste dugu. Artista hutsak dira eta zoriondu egin behar zaie egindako lanagatik».

Bestetan dantzak

Herriko bestetan ere ez da dantzarik faltako, «Sunbillako bestetan dantza emanaldia eskainiko dugu. San Tiburtzio Egunean izanen da eta tartean, bertako bereizgarria den dantza luzea dantzatuko dugu». Ekitaldi ofizialetatik haratago ere dantzarako prest egonen dira: «Musika aditu bezain laster hasten gara dantzan». Dantzarako laguna topatzea zertxobait kostatzen bada ere, uste dute ez direla bakarrik egonen plazan: «Sunbilla ez da herririk dantzariena, baina ez da batere



Hiru urterekin hasi ziren dantza ikasten.

kostatzen norbait dantzan hastea erromeriak eta daudenean».

Eta dantzatik haratago, bestetan ongi pasatzeko bertze hamaika modu ere izaten direla nabarmenduz, gogorik ez zaie falta: «Giro ederra sortzen da herrian eta antolatutako ekitaldi gehienetara joateko tarte hartzen dugu. Frontenis txapelketaren finala, zopak, txu-txu tren...».

Abuztuaren 7an lehenbiziko txinpartak piztu eta abuztuaren 12ra arte luzatuko da besta giroa Sunbilla. Lehenbiziko egunetik azkenetara arte, «duten guztia emateko asmoa» dutela diote, «urteko egunik berexienetakoak izaten dira». Mahaiaren bueltan bilduta borobilduko dute borts eguneko ospakizuna: «Gure ustez, azken eguneko afaria hagitz berezia da, adin guztietako herritarrek bertan elkartzen garela eta giro hagitz polita sortzen delako». Gonbidapena luzatu dute: «animatu eta etor zaitezte Sunbillako bestetan ongi pasatzera».

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK
☎ 699 122 815 ✉ javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus

GREMIOEN KOORDINAZIOA
Sunbilla, Nafarroa

Etxebizitza berriak | Zaharberritzeak | Erreformak | Konponketak
Teilatuak | Harri eta hormigoi lanak | Mota guztietako igeltseritza lanak

LEITZAKO EGITARAUA



Ezpata dantza eskainiko dute abuztuaren 11n.

ABUZTUAK 8,
LARUNBATA

14:00etan eskelarien bazkaria Aurrera elkartean. **16:00etan** auzoz auzo programa banaketa trikitilarien, txistularien, akordeoilarien eta dultzaina jotzaileen laguntzarekin. **23:00etan** Atekabeltzen SuperLore, Oihuka eta Primikass Dj. **23:00etan** Zaze Dj Aurreran. **00:00etan** Fresa Morango Dj plazako txosnan.

ABUZTUAK 9,
IGANDEA

09:00etan diana txistulariekin. **10:00etan** korporazio txikiaren gosaria udal ordezkariarekin. **10:30ean** haurren txupinazoa. **Ordoren**, gurpildun zezena plazan. **11:30ean** Denok Bat guraso elkarateak antolatutako herri kirol jolasak plazan eta txikientzako txoko berezia

Aieneko garbilekuan. **17:00etan** Leitzako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa plazatik abiatuko da. **18:30ean** Aurrerako dantzari txikien emanaldia eta ondoren ingurutxo irekia plazan. **Ordoren**, goxokiak banatuko dituzte. **20:30ean** Kaktus Dj. **23:00** aldera zezensuzkoa.

ABUZTUAK 10,
ASTELEHENA

11:00etan gazte jokoak. **13:00etan** Etxera kalejira musikatua. **14:30ean** kantu bazkari herrikoia karrapean. **18:00etan** txupinazoa. Programa eta Plazaola aldizkariako azalen irabazleei sariak banatuko dizkie Kaxkabeltza Elkarateak eta udalak. **Ordoren**, Leitzako Konpartsak kalejira egingen du dultzaina jotzaileekin, Incansables txarangarekin eta txistulariekin. **18:30ean** La Jodedera Labetxeko atarian. **22:00etan**

ongi pasa pestak!

ARIZTELA
ATELIER KORTSETERIA
621 127 546

Zure gorputzari egokitutako barneko arropa
Bularretakoak, bainujantziak eta gehiago ...
Landa Industrialdea, 3 - LEITZA

ongi pasa pestak!

GAZTAÑAGA
TABERNA

OGITARTEKOAK

PINTXO
BEROAK

KAXUELAK

948 610 708 - LEITZA

ongi pasa pestak!

LEITZAKIROLAK

Elbarren, 36 · LEITZA · Tel. 948 610 976
info@leitzakirolak.com · www.leitzakirolak.com

AISLAN, s.l.

POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

ongi pasa pestak!

AISLAN-LEITZA, s.l.
618 915 943
Santa Luzia pasealekua, 4 B Behea · Butintxuri · IRUÑA
aislanleitza@yahoo.es

MASAJISTA

Zeure buruari
denbora eskainiz zaindu

Masajista zerbitzua,
Ito Thermie saioak eta ikastaroak,
masajea eta autozaintza tailerrak

Elbarren kalea, 43, 2. Aliñea Tel. 646 568 753

Arzallus

HARATEGIA

ongi pasa pestak!

Txistorra eta artisau produktuak, etxean eginak
Elbarren, 37 · LEITZA · Tel. 948 510 377

BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA

ongi pasa pestak!

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak
Mikel Deuna, 2 · Tel: 948 510 991 · LEITZA

Bi Lagun

lñurrista ind.P-2
31880 LEITZA
T. 948 610 985

ongi pasa pestak!

ongi pasa pestak!

DANI
ITURGINTZA

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

DENAUTO SAGASPER
Tailerra

ongi pasa pestak!

AUTO KONPONKETA
Eluseder Ind. · ARESO · T 948 510 610 · F 948 510 917

ARIZTIMUÑO ANAIK ERAIKUNTZAK

ONGI
PASA
BESTAK!

Landa Ind. 19 · 31880 LEITZA
M. 648 610 648 · 618 709 668 F. 948 510 693
construccionesariztimuno@gmail.com



**PERITZA
TABERNA**

*Pesta onak pasa
eta txintxo ibili!*

EROSKI city

Harategia, urdaitegia,
arraindegia, frutategia...

**Herritik atera gabe
erosketa guztiak**

Tel: 948 510 007 · 948 610 657
Elbarren, 20-71 LEITZA

*Ongi pasa
pesta!*

Ongi pasa pestak!

euskron

**Etorri gurekin
lanera!**

+34 948 510 807
www.euskron.com

Elutseder 4
31876 Areso



Gauetan hainbat musika emanaldi izanen dira.

zezensuzkoa. **23:00etan** Itzal erromeria taldea. **Ondoren**, Incansables txarangarekin gaueko erronda. Txekor Dj ariko da plazako txosnan. **23:00etan** elektro gaua izanen dute Atekabeltzen: Bitter Ama, Mike Villas, Monika Elektra eta Bendiak ariko dira musika jartzen.

ABUZTUAK 11, ASTEARTEA

08:00etan diana txistulariekin.

09:00etan, entzierroa eta behiak plazan. **11:00etan** hamaiketako irekia karrapean. **12:00etan** Aurrera dantza taldearen ezpata dantza plazan.

13:00etan Incansables txarangaren erronda. **17:00etan** zezenak plazan.

17:30ean jazz kontzertua Aurreran.

19:00etan aizkora erakustaldia plazan: Vicente, Saralegi, Ezpeleta, Otaño, Arruti eta Barrenetxea ariko dira. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. **19:30ean** Incansables txarangaren erronda eta buruhandiak aterako dira Aurreratik.

22:00etan zezensuzkoa. **23:00etan**

Me Vale Madre. **Ondoren**, Incansables txarangak gaueko erronda egingen du.

ABUZTUAK 12, ASTEAZKENA

08:00etan diana txistulariekin.

09:00etan entzierroa eta behiak plazan. **11:30ean** Leitzako pilota festa Amazabal pilotalekuan. **13:00etan**

paella jana karrapean eta Incansables txarangaren erronda. **17:00etan**

zezenak plazan. **19:00etan** Aurrera dantza taldeak emanaldia eskainiko du plazan. **Ondoren** goxokiak banatuko dituzte. **20:00** aldera bertso poteoa tabernaz taberna Aurreratik abiatuta.

Segidan, Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dira. **22:00etan** zezensuzkoa. **23:30ean** Maruxak taldearen kontzertua plazan. **Ondoren** Atekabeltzen Fifi eta Fefa Dj eta plazako txosnan musika Djren eskutik. **01:00 aldera** Incansables txarangaren gaueko erronda. **03:00etan** gaueko ingurutxo irekia plazan.

*Leitzako pestetan
herria beti garbi!*

traeco
ingurumena · medioambiental

www.traecomedioambiental.com

ABUZTUAK 13, OSTEGUNA

08:00etan diana txistulariekin.
09:00etan entzierroa eta behiak plazan.
10:30ean Leitzako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa plazatik aterako da eta herrian zehar ibiliko da. Kataluniako Llinar del Valles herriko konpartsa gonbidatu dute eta kalejiran parte hartuko dute. **11:30 aldera** goxokiak banatuko dituzte. **13:00etan** txakolin dastaketa eta Incansables txarangaren emanaldia karrapean.
17:00etan zezenak plazan. **18:30ean** bertso saioa plazan: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Ekhiñe Zapiain, Joanes Illarregi eta Xabat Illarregi ariko dira kantuan. **21:30ean** zezensuzkoa.
22:00etan herri afaria. **00:00 aldera** Incansables txarangaren gaueko erronda.



Zezensuzkoa aterako da hainbat egunetan.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **11:00etan** Leitzako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa. **12:00etan** emakumeen herri kirol saioa plazan. Maddi Gesalaga, Malen Morandeira, Lierni Osa eta Ainitze Zumeta ariko dira harria altxatzen. **13:00etan** Incansables txarangaren erronda.
14:00etan jubilatuen bazkaria. **14:30ean** Aurrerako bazkideen bazkaria. **17:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **18:00etan** pestetako pilota partida profesionalak Amazabal pilotalekuan. Iturriaga eta Arrastia, Oskoz eta Perez kontra ariko dira. Segidan, Victor eta Merino II, Retegi Bi eta Arbizuren kontra ariko dira. Sarrera doan izanen da. **19:00etan** helduen ingurutxoak plazan. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte eta Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dituzte. **20:00etan** Trikidantz taldearekin erromeria.
22:00etan zezensuzkoa. **23:00etan** Trikidantz eta **00:30ean** Gaixoa Ni.

FISIOETXEA
 Ane Egizabal Llaia
 Fisioterapeuta

K-STRETCH metodoa
 Ariketa terapeutikoak | Osteopatia
INDIBA ACTIV zentroa
 Gimnasia Abdominal Hipopresiboa



LEITZA · Uharte Gotzaina, 8 3.C · 948 510 730



Garbi
 drogeria - lurrindegia

ongi pasa pestak!

Huarte Gotzaia 19, LEITZA

948 51 01 73

gaztelu

ONGI PASA PESTAK!

KALEFAKZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA
 BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind. 21, LEITZA T. 948 510 086
 info@fontaneriagaztelu.com · www.fontaneriagaztelu.com



izaskun
 estetika zentroa



edertasun
 tratamendu
 eta aholkuak

Uharte Gotzaina 4 behea
 LEITZA - T. 638 306 110

KAMPERBIDE

ONGI PASA PESTAK!

Landa Poligonoa 8b · LEITZA · 669 707 916
 info@kamperbide.com · www.kamperbide.com



GAZTAÑAGA



SIDRA NATURAL · SAGARDO NATURALA

URTE OSOAN IREKITA

Ongi pasa pestak!

Buruntza auzoa | ANDOAIN

943 591 968



Lopenea
 Elbarren, 47 - LEITZA
 606 27 35 34 · 688 64 08 34
 www.lopenea.com

**BOKATAK · KAXULAK
 MENUA · PINTXOAK
 PLATER KONBINATUAK**

ONGI ETORRIAK

**HDM
 FOOD POINT**
 LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

Asteazken zehar
12:00-00:00

Asteburu eta jaiegunetan
12:00-02:00

Deitu eta egin zure eskaera!
848 834 091
688 648 002

Etxera eramateko zerbitzua!

Elbarren, 22 (Txoko) | LEITZA

KK kide Aholkularitza *Ongi pasa pestak!*

Kontabilitate kudeaketa eta aholkularitza Zerga aholkularitza Lan aholkularitza

Enpresen sorrera eta jarraipena Zuzenbide aholkularitza Beste izapide batzuk

izaskun@kide.eus · www.kide.eus

LEITZA: Landa Ind. 18 - 1 · T. 948 510 990
DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5 - 2 · T. 943 420 348

LEIMEN S L *ONGI PASA PESTAK!*

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 David

Leitza Garajea **Multimarka**

Ibai Mitxelena Mariezkurrena

LEITZA GARAJEA
 MULTIMARKA TAILERRA
 STILH AGENTZIA
 NEKAZARI TAILERRA
 SALEROSKETA

ONGI PASA PESTAK!

Landa Industrialdea · LEITZA
 948 510 466

AMAIA
ARRAINDEGIA

948 510 590
 Uharte Gotzaia | LEITZA

Ongi pasa pestak!

«Gazteen arteko harremanak sendotu eta parte hartzea sustatu nahi dugu»

XANA RETEGI FERNANDEZ ETA GARAZI ZABALETA ASTIBIA

Eneritz Iraola. LEITZA

Azmarrean ari eta gazteria martxan jarri. Horixe da Leitzako Gazte Azmarren taldearen asmoa. Iazko Gazte Egunaren bueltan sortu zen txinpartari eutsi eta sua bizi-bizi mantentzeko lanean ari dira. Taldeko kideak dira Xana Retegi Fernandez eta Garazi Zabaleta Astibia leitzarrak eta taldea «denontzat topaleku» izatea nahi dute: «gazteek beraien ideiak proposatzeko, antolatzeke eta herriko bizitzan eragiteko gune baten beharra dutelako».

Azaldu dute helburu nagusia «herriko gazteen arteko harremanak sendotzea eta parte hartzea sustatzea» dela. Aitortu dute bazegoela horretarako beharra: «Lagun taldeak oso bereizita daude eta nahiko itxiak dira. Hori gazteen arteko harremanetan eta jarduerak antolatzeke orduan oztopoa dela pentsatzen dugu». Argi ikusi zuten, «kuadrillen propotipo hori hautsi» behar zela: «Oinarrizkoa zen adin ezberdinetako gazteak elkar-tu eta harremanak sortzea». Batzuentzat integratzeko aukera ere izan zitekeela ikusi zuten: «garrantzitsua iruditzen zaigu lagun talde finko bat ez duten gazte horiek ere herrian beraientzat tokia izatea. Inor bazterrean ez gelditzea». Hala, azpimarratu dute «edonork ateak irekiak» izanen dituela, «edozein ekimenetan parte hartzeke, laguntzeke edo ideia berriak ekartzeko».

Talde anitza

Gazteen erantzuna ikusita, badirudi beraien helburuak bete dituztela: «Taldea adin eta kuadrilla ezberdinetako gazteek osatzen dugu, eta hori gure indargune nagusienetako bat da. Horri esker, gazte mota askoren interesak eta beharrak kontuan hartu ditzakegu, eta, ondorioz, gustu eta zaletasun ezberdinetara egokitutako ekimenak antolatzeke aukera dugu; giro irekiago eta parte hartzaileago bat sustatuz».

Aisialdirako eskaintza osatzea ere badago beraien asmoen artean, «kirol arloan dauka Leitzak eskaintza zabalena eta hortik kanpo bestelako guneak eta jarduerak ere beharrezkoak direla uste dugu».

Esan eta egin, abenduan eta uztai-lean hainbat ekitaldi antolatu dituzte: «gazte afaria, jolasak, kontzertua... eta erantzun oso ona izan dute». Herriari bizitasuna emateko modua da: «Askotan entzuten da herrian giroa motela dela eta ez dagoela lehen adina mugimendurik. Hori horrela ez izatea gure esku dago. Herriko giroa zaintzea eta elikatzen jarraitzea guztion ardura dela iruditzen zaigu».

Uztailako ekitaldiekin giroa zertxobait berotuta, aurtengo pestei begira jarri dira: «Hasteko, abuztuaren 10ean, goizean, gazteen joko-erronkak antolatu ditugu. Abuztuaren 14an ospatuko dugu Gazte Eguna. Eguerdiko 13:30ean bazkaria izango dugu, Leitzako Habelarte Elkartearen eskutik, eta bazkalondoa bingo batekin girotuko dugu. Ondoren, plazan zezenak eta gazteentzako jolasak izanen dira, eta jarraian Elektrotxuffarekin herrian zehar giro ederra sortuko dugu. Gauean, Su Ta Gar taldearen kontzertua izanen da plazan». Ez da hor bukatuko pesta: «Abuztuaren 15eko goizaldean gaupaseroentzat joko bereziak antolatuko ditugu herriko plazan».

7 eguneko egitaraua

Gazteek antolatutako ekitaldi horietan izanen dira Retegi eta Zabaleta, baina askoz gehiagorako ere emanen dute Leitzako pestek: «Ilusio handiz bizi ditugu herriko pestak. Urteko unerik

«Ateak irekiak dituzte edozein ekimenetan parte hartzeke, laguntzeke edo ideia berriak ekartzeko»



Retegi eta Zabaleta Gazteak Azmarren taldeko kideak dira.

berezienetakoak dira guretzat. Ekimen gehienetara hurbiltzen saiatzen gara, nahiz eta denetara iristea ezinezkoa izan». Hala ere, egun bakoitzean badituzte «galduezinak» diren hainbat ekitaldi: «Txarangazale amorratuak garenez, guretzat ezinbesteko hitzordua da Incansables Txarangaren edozein erronda. Biok dantzariak garenez, abuztuaren 12ko dantza emanaldia ere estimatzen dugu, urte osoan prestatutako lana herriaren aurrean erakusteko aukera ederra izaten delako». Gehiago ere aipatu dituzte: «Asko gustatzen zaigu abuztuaren 10eko txupinazoaren ondorengo La Jodedera taldearen kontzertua. Plazan egiten den herri apartak ere badu bere xarma». Baina, ekitaldiak baino gehiago pesten indargunea «giroa» dela azpimarratu dute. «Bost egunez herrian dagoen mugimendua, lagun eta familiarekin egoteko aukera, eta adin guztietara egokitutako ekintzak uneoro. Erraz disfrutatuta eta gozatu ditugu Leitzako Pestak!».

Egunez zein gauez, pesta giroan ibiltzeko asmoa dute: «Eguneko eta gaueko giroa, biak ditugu gustuko, guztiz ezberdinak direlako». Eguneko pestak urteko beste edozein egunetan aurkitu ezin duzun zerbait duela azaldu dute: «Herria bost egunez jendez, musikaz eta mugimenduz beteta egotea, goizetik gauera etengabe zerbait gertatzen aritea... hori aurkitzea ezinezkoa da urteko beste garai batean, eta horregatik egiten zaigu hain berezia». Horrek ez du esan nahi gaueko giroa alde batera utziko dutenik: «Gazteak garenez, gaueko festak ere gogotik disfrutatzen ditugu, eta ez dugu aukera galtzen». Lortzen dute

bien arteko oreka: «Egia da noizbehinka goizeko edo eguerdiko ekitaldiren batean huts egiten dugula aurreko gaua luzatu delako eta indarrak berreskuratzeko... baina hori ere pesten parte da!».

Leitzako pestetan zerbait faltan botatzen ote duten galdetutakoan dantzari sena piztu zaiei bie: «edozein herritarrek plazan dantatzeko hitzorduren bat faltan botatzen dugu. Dantzaldi formalek badute beren tokia pestetan, abuztuaren 11ko ez-pata dantza eta 12ko dantza saioarekin; aldiz, Baztanen mutil dantzak, Lesakan larrain dantza edo zenbait herritako mutxikoen antzeko saio ireki bat ere polita izanen litzateke». Proposamen zehatza ere luzatu dute: «Leitzan badugu aipatutako dantza horien parekoa izanen litzatekeen Inguruxoa. Garai batean pestetan egunero dantzatzen omen zen. Egunero dantzatu behar izanik gabe ere, gure herrikoa den dantza zaindu eta jendea dantzara animatu beharko genuke». Dantza saio ireki eta herriko batekin jendearen parte hartzea bultzatuko litzateke: «Edonork parte hartu ahal izanen luke, dantzaria izan edo ez, gaztea zein heldua izan, dantzaz modu lasaia edo espontaneoago batean gozatzeko aukera izanen lukeelako. Agian, horrek jende gehiago gonbidatuko luke dantza taldera hurbiltzera».

Bukatzeko, gonbidapena luzatu dute: «Leitzako pestak asko disfrutatzeke, elkar zainduz eta giro ona sortzen lagunduz. Espero dugu bertan elkar ikustea eta denon artean aurtengo pestak izugarriak izatea. Ongi pasa Leitzako pestak!».

leitzara
taberna

ongi pasa pestak!

Pintxo eta ogitarteko aukera zabala

677 721 688
Uharte Gotzaina 2 LEITZA

LEITZELARREA, S.L.

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa industrialdea, 20 | LEITZA
T. 948 510 598 - 699 824 365 | info@leitzelarrea.es

Ongi pasa pestak!

Lirain
Arropa-denda

ONGI PASA PESTAK!

Elbarren 34, LEITZA
676737856

MAIMUR ONGI PASA PESTAK!

· Prentsa · Opariak · Testu liburuak
· Plastikatzak · Enkuadernatzak
· Inprenta lanak · Fotokopiak

Elbarren, 15 - Herriko Plaza - LEITZA
maimurleitz@gmail.com · T/F: 948 510 146

Melo Pinturak ONGI PASA PESTAK!!!
koop.

T. 609 873 178
LEITZA

www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.com

MAXI VICENTE
ERAIKUNTZAK

ongi pasa pestak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 606 307 810

FERRETERIA - PENTSUAK Ongi pasa pestak!

ORTIZ

Baserriko gaiak

- Tresnak
- Haziak
- Sagardoak
- Baratza
- Ardoak
- Kontserbak
- Pentsuak
- Eraikuntzarako gaiak

@ ortizpentsuak@gmail.com
Landa industrialdea 13
31880 Leitza - Nafarroa
T. 948 513 600
www.ortizferreteriapentsuak.blogspot.com.es

Saralegi
Taloak

Bertakoa, naturala, goxoa!

ONGI PASA
PESTAK!

Saralegi Taloak
ARRO BASERRIA | LEITZA
610 378 543

Sagasti

PESTETAKO MENUA

ELKARBANATZEKO
Ahuntz gazta entsalada
intxaur eta paxekin
Bakailao piper beteak
Ganba brotxeta

AUKERATZEKO
Entrekota parrillan
Txerri masailak saltsan
Mingaina saltsan
Lupia
Sepia
Bakailaoa ajoarriero eran

POSTREA + EDARIA + KAFEA

35€

Elbarren 98, LEITZA
602 078 912

«Oso pozgarria izan da egiten dudana lana herritarrek baloratzen dutela ikustea»

JOXE RAMON CABALLERO LIZARTZA **TXOKO** TXUPINAZOA BOTAKO DU

Eneritz Iraola LEITZA

Herria txukun egoteko norbaitek astindu behar izaten du eskoba. Badaki zerbait hortaz Joxe Ramon Caballero Lizartza *Txokok*: «2015ean hasi nintzen herriko garbitzaile lanetan eta pesta egunetan laguntzaileak izaten ditudan arren, urteko beste egun guztietan neronek bakarrik garbitzen dut herri osoa». Aitortu du lanean ari denarentzat ez dela lan eskertua, «garbitu eta ordu gutxirako zikina dago. Gero denok nahi dugu herria garbi egotea». Badirudi jendeak eskertzen duela egiten duena eta badu horren frogarria; pestetako suziria botatzeko aukeratu dute herritarrek.

Harrituta eta hunkituta jaso du berria: «Ezusteko handia izan da. Zerbait ongi egin izanen dugu... Beste hautagaiak ikerlariak eta bertso-lariak ziren eta ez nuen espero ni aukeratzea. Azkenean ikerlariekin batera botako dut txupinazoa eta polita da momentu hori konpartitzea». Geroztik, jende asko gerturatu zaio zoriontzera: «Polita da jendearen berotasun hori sentitzea. Jendeak esaten didana da, beti umoretsu aritzen naizela lanean... Aurpegiz hala ematen du, baina barrendik izaten da batzuetan prozesio pixka bat».

Kalea lantoki

Dena ez baita urre kolorekoa: «Kalea da nire lantokia, bere alde on eta txarrekin. Kaleak jendearekin harreman zuzena izateko aukera ematen dizu, baina eguraldiaren menpe zaudete. Datorrena hartu behar duzu. Negan uretako galtza eta txaketarekin, beti blai eginda, eta udan bero».

Goizeko zazpi eta erdiak aldera hasten du lanaldia: «Astean jai egun bakarra izaten dut, larunbata. Hori da lan honek duen alde txarra, oso lotua dela. Larunbateko atsedenaren truke, igandean garbitzeko doble izaten da». Denek jai izaten dutenetan lan egitera ohitua dago: «Sekula baino lan gehiago gainera...



Abuztuaren 10ean botako du txupinazoa.

Astez igualeko ederki aritzen da betiko martxan».

Kale nagusia, alde zaharra, auzoak... Egunaren buruan «kilometro dezent» egiten ditu: «Ibilbide batzuk osatuak ditut, lana banatzeko. Kale nagusia asteen lauzpabost aldiz egiten dut eta eskola inguruak aste erdian eta igandean, astelehenerako dena txukun uzteko» Alde zaharra izaten omen da urtean zehar lasaia, baina horrek ere badu engainua: «Arboleak udazkenean lan ederra ematen dute hostoekin». Pipa azalek ere nahikoa buruhauste ematen dizkiote: «Gure garaian ez zen pipa azalik izaten, ez genuen eta erosteko dirurik izaten. Plazan aritzen ginen jostaketan eta noizean behin zinera joaten ginen Cantinflasen pelikularen bat ikustera. Orain pipak, bestelako goxokiak... denetarik izaten dituzte eta edukion-

«Herria txukun eta garbi ikusi nahi dugu. Zikintzen duena ez al da konturatzen bere kalterako ari dela?»



2015ean hasi zen herriko garbitzaile lanetan. E. IRAOLA

tzia eskura izan arren, asko dira azalak, pataten zorroak... lurrera botatzen dituztenak. Hori ez dut ulertzen». Galdera ere egiten dio maiz bere buruari: «Zikintzen duena ez al da konturatzen bere kalterako ari dela?». Galdutakoak biltzeko lana ere ez zaio falta: «karrapean uzten ditut ahaztuta uzten dituzten arropak, patineteak, patinak... zintzilik».

Kaleak inoiz baino garbiago zeuden garaia ere gogoan ditu: «Pandemia kalean ni bakarrik ibiltzen nintzen. Ez nintzen etxean sartuta erotu. Orduan ez zen zaborrik pilatzen, baina tristea zen egoera. Lan gehiago dakarren arren, kaleak jendez beteta nahi ditut nik».

Pestaren arrastoak

Pestak utzitako arrastoak urte mordoan garbitu behar izan ditu Txokok: «Lehengo urtean herriko pestetan jai izan nuen eta aurten ere hala izanen dut, baina urte askotan aritu izan naiz lanean». Herriko pestak aipatzen dira, baina kontuan izan behar da egutegian gorritz seinalatutako egun dezente izaten direla urtean zehar: «Leitzan edozein aitzakia aski da pestarako: ihauteak, Sagardoaren Eguna, Aurrera Eguna...». Urtetako esperientziari esker, dagoeneko aurreikus dezake non izanen duen lana: «Badakit garbi non egonen diren zerrikeria guztiak. Non topatuko ditudan txota, zaldia eta erregea».

Lan karga handiena duten momentua herriko pestetan izaten dela azpimarratu du: «enpresatik jende gehiago bidaltzen dute egun horietan

laguntzera. Pertsona bakarrak egitea ezinezkoa da. Presaka lan egin behar izaten da, kale nagusiak 09:00etako entzierrorako garbi-garbi egon behar duelako». Pestaz denek gozatu behar dutela azpimarratu du: «gauez ibili denak, baina baita egunez ateratzen denak ere». Lana errazteko, hartuak ditu baligarriak zaizkion hainbat errutina: «festaren bat denean lanean hasi baino bi ordu lehenago erronda bat egiteko ohitura dut beti. Panorama ikustera etortzen naiz eta horrela beste garbitzaileak etortzen direnerako prest izaten dut behar dugun erreminta».

Garbitzaileak eta gau txoriak

Garbitzaileek eta gau txoriek bat egiten dute eguna argitzen denean. Hamaika pasadizo ditu kontatzeko: «Gaztea, gaztea da eta pestan dabilzanak animatuta egoten dira. Xelebrekeriarik ez da falta izaten». Garbitzaile lanetan ari den leitzar bakarra izanda, jendea zirikatze gogoz egoten da, «Noizbait bidetik baztertu nahi izan ez dutenak, freskaldi ederra hartuta mugitu izan dira». Beste batzuk, berriz, lagundu nahian hasten dira eta barrezka gaineratu du: «ez dira konturatzen lana kendu baino gehiago jartzen dutela». Denak ez dira, ordea, aldarte berean ibiltzen eta batzuetan egoerari neurria hartzen ere jakin behar izaten da: «tartean ikusten dira errespetu falta edo jarrerara desegokiak. Adibidez, kristalezko botilak lurrera botata txikitzen dituztenak. Arriskua da juergan dabilenarentzat eta ez dabilenarentzat».

VICUÑA

LOGISTICS+

Ongi pasa pestak!

ZORTZIKO

LEITZA - 948 510 720

ONGI PASA PESTAK!



ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA | MOBLEAK
MANPARAK | KOMUNERAKO OSAGARRIAK

pesta zoriontsuak igaro!

Tel. 647 525 516 • ARESO | LEITZA
arkaitzareso@gmail.com



LEITZAKO UDALAK

pesta zoriontsuak opa dizkizue
leitzar, bisitari eta gurekin egon
ezin izan duzuen guztiei



ONGI PASA PESTAK!



**HOSTAL
MUSUNZAR**

EGUNEKO MENUA | ASTEBURUKO MENUA
BOKATAK | PLATER KONBINATUAK

Elbarren, 14 | LEITZA | 622 89 95 47



Ongi pasa pestak!

EZKAIN
Eraikuntzak S.L.

☎ 650 910 867 / 948 610 956
☎ 650 910 868 @ ezkain1@gmail.com
📍 Lizarraga, 3 - 31880 LEITZA

EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.



Oihan aprobetxamenduak
Bertako eta kanpoko zur-biltegia
Egurra aireko kable bidez ateratzen dugu
Oihanberritze lanak
Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa

Landa Ind. I eta II • LEITZA
Tfnoa: 948 510 214 • Faxe: 948 510 841
M: 606 949 130 - 606 949 131
info@zubillagasaralegui.es



Ongi pasa pestak!

HIERROS LEITZA

Iñurrista Pol, 12 - LEITZA

948 51 08 48
www.hierrosleitza.com

Urte berezia izanen da aurtengoa Txokorentzat, urrian erretiroa hartuko duelako: «Urriaren 11n beteko ditut 65 urte. Jaia tokatzen da eta berez, lana izanen dudan arren, opor eguna hartu eta familiarekin otordu bat eginen dut. Urriaren 9a izanen da nire azken lan eguna, merkatua garbitu eta beste norbaitek hartu beharko du biharamunean eskoba. Errege kendua, errege jarria».

Pesta giroan

Eskoba etxean utzita, ez dakigu aurten gautxorien inguruan ibiliko ote den: «nire modura, pestetan disfrutatzen saiatuko naiz». Eguneko pestaren zalea da: «Gustatzen zait pestetan goizean atera, zezenak ikusi, gosalduta eta pixka bat lagunekin egotea». Kirol hitzorduak ere ez ditu galtzen: «Kirola asko gustatzen zait: aizkolariak ikustea, pilotariak... ikus-kizuna izaten da». Abuztuaren 8tik 15era, «bakoitzak bere gustukoa topatzeko aukera» izanen duela uste du: «Azken finean festa denentzako da. Batzuk taberna inguruan ibiliko dira eta besteak plazan, freskura ederran eserita musika adituz. Denentzako tokia dago pesta giro horretan».

Pesta giro hori azkeneko urteetan «puska bat» aldatu dela uste du: «Lehen nik uste txarangarekin jende gehiago ibiltzen zela, nahiz eta orain baino taberna gehiago egon. Orain taberna giroa gehiago bilatzen dutela esanen nuke». Ez da aldaketa bakarra izan, eta zorionez badira hobera aldatu diren kontuak: «Garai batean guk pesta egiten genuen, baina gure amak ez zuten pestarako aukerarik izaten. Haien zatikoz bikoiztu izaten zen!». Sanfermin ondoren hasten omen zen



Urrian hartuko du erretiroa.

prestaketekin eta gerora ulertu du urtero pesta bezperan esaten zion esaldia: 'gaur hasten dira pestak, ai bukatuak baleude...'. Argi dio: «Berdintasuna eskatzen zen, baina berdintasuna baino askoz gehiago mezezi zuten».

Abuztuaren 10ean, udaletxeko bal-koian aterako den argazkia izanen da aldaketa horren erakusle: «Bi emakume ikerlarik eta garbitzaile batek botako dugu txupinazoa. Hori bada zerbaiten erakusle». Argi du zein den zabaldu nahi duen mezua: «Eskerrak eman nahi dizkiet herri-tarrei hautatzeagatik. Pesta alai-tasunez pasatzera animatu nahi ditut eta kanpotik etorriko direnak ere ongi-etorriak izanen dira. Ohar ttiki bat ere luzatu nahi dut. Nire lagunengan pentsatu eta ez ditzate-la mesedez kristalezko botilak har-rika bota. Pestaz gozatu eta herria zaindu!».



Haragia, gazta, hestebeteak, pateak, aurretik sukaldatutako produktuak

Ongi PASA PESTAK!

"Gurea, kalitatea"

LEITZA - T. 676 78 57 68 - Landa pol. 18



Ongi PASA PESTAK!

OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS
KAFETEGI
OKINDEGIA

Egunero egiten ditugu
PIZZAK

948 610 974 | LEITZA